


TTiPi-TTAPA

ALE BEREZIA 24 zenb.



NAFARRUAKO
BERTSOLARI
TXAPELKETA

88



TXAPELKETA HONETAN ARITU DIRENAK



FELIX INURRATEGI.-

Aretxabaletan jaioa (Gipuzkoan) eta Iruñean bizi dena. 21 urte ditu eta Atarrabiako Nekazari Eskolan ikaslea.



JOXE MIGEL ARGINARENA.-

Errazkingoa eta Donostian bizi dena. 40 urte ditu eta bi aldiz txapeldun izana; 1979an (Lesakan) eta 1982an (Lesakan).

JOXE FERMIN ARGINARENA.-

Errazkingoa eta Urnietan (Gipuzkoan) bizi dena. Igeltseroa. 35 urtekoa eta 1986an txapeldun izana (Donezteben).



JOXE MARI FAGOAGA.-

Iturenen jaioa, 23 urte ditu eta langilea da.

TXOMIN AMORENA.-

Zugarramurdikoa, 36 urte ditu eta ogibidez igeltseroa.



ANTONIO OLANO.-

Aranon jaioa eta Hernanin bizi dena. 34 urte ditu eta langilea da.



EUSEBIO FAGOAGA.-


Iturenen jaioa, 22 urte ditu eta ogibidez igeltseroa.

BAUTISTA PERURENA.-

Goizuetakoa eta Leitza bizi dena. Jubilatua.

MIKEL TABERNA.-

Lesakan jaioa eta Iruñean bizi dena. 31 urte eta Hizkuntza Eskolan irakasle.




PATXI ZEBERIO.-

Gipuzkoako Itsasondan jaioa eta Barañainen bizi dena. 30 urte ditu eta langilea da.

XALBADOR MADARIAGA.-

Arantzakoa, 58 urtekoa eta jubilatua.





FERMIN MIHURA.-

Lapurdiko Saran bizi da eta 40 urte ditu.

BAUTISTA MADARIAGA.-

Arantzan sortua, 61 urtekoa eta jubilatua. 1961. urtean Etxarri Aranatzen ospatutako Nafarroako Bertsolari txapelketaren irabazle



TXOMIN EZPONDA.-

Jatsukoa, 51 urtekoa eta lanbidez izozki saltzailea. 1983. urtean Donibane Garazin ospatutako Nafarroako Bertsolari Txapelketaren irabazle



ANGEL MARTIKORENA.-

Igoakoa, 45 urtekoa eta nekazaria.

NIKOLAS IZETA.-

Usurbilen jaioa eta Burlatan bizi dena. 27 urte ditu eta ikaslea da.

MANU GOMEZ.-

Donostian jaioa eta Iruñean bizi dena. 21 urte ditu eta Ikaslea da.



JEAN PIERRE MENDIBURU.-

Heletakoa, 40 urte ditu eta nekazaria da lanbidez. Bi aldiz txapeladun izana, 1981ean (Lesakan) eta 1984ean (Sunbillan).



MOISES JASO.-

Gainzakoa (Araiz) eta Irunen bizi dena. Orain dela 55 urte sortua eta Udal-langilea.

J.L. HARINORDEGUY "LAKA".-

Baigorriin sortua eta lanbidez idazkaria.

BITTOR ELIZAGOIEN.-

Arraiozkkoa, 25 urte ditu eta "Marmoles del Baztan"en lan egiten du.



ERNEST ALKAT.-

Iholdin sortua, eta arno-kooperatiba batean lan egiten du. 1987an Beran ospatutako txapelketaren irabazle.

LONTXO ABURUZA.-

Bidanian jaioa (Gipuzkoan) eta Iruñean bizi dena. 33 urte ditu eta lanbidez irakaslea da. Nafarroako Bertsolarien Lagunak Elkarteko idazkaria.

MANOLO AROZENA.-

Goizuetan jaioa eta Lesakan bizi dena. 38 urte ditu eta garraiolaria da lanbidez.




MIXEL AIRE XALBADOR.-

Benafarroako Urepelen sortua eta artzaia lanbidez. Hiru aldiz irabazi du txapela; 1980an (Lesakan), 1985ean (Leitzan) eta aurtengoan Iruñean.

PABLO JOSE ARISTORENA.-

Hernanin jaioa eta Iruñean bizi dena. 19 urte ditu eta OPUSen kazetaritza ikaslea da.



Miura

Nere andreak oraindik ere
badauka bere grazia,
gaur ateratu (di)tuen solasak
kasik ezin sinetsiak.
Maidar nola zure nahi duzun hor
izaitia gutizia,
gure haurtxoak ere baitute
orain emaiten bizia. (bis)

Miura

Jende aurrean zer gauzak hemen
behar ditugunak entzun,
ez dut nik uste horiek sinesten
dutena zuk zer diozun.
Oraindik ere nahi baduzu
emain dotzut berotasun,
tinkaldi bat bai sarri hortxe (ber)tan
ia edukitzen nauzun.

Irieder: orain hirua eta laua; Ezponda eta Martikorenarentzako gaia. Zu Ezponda mugazaina zira. Zu aldiz, Martikorena, benteroa, bentetako nagusia. Lau urteren buruan, lautanogei eta hamabian, Europarekin mugarik ez da izanen. Zer bilakatu zirazte? Hiruna bertsu zortziko haundian mugazaina hasita.

Ezponda

Lau bat urteren epea degu
eman dute inkantian,
eta gu orain hementxe gabiltz
bai muga baten erdian.
(I)kusi dezagun lege horiek
juanen dira zuzenian,
bakoitxak gure lana e(g)in dezagun
hemendik ordu artian.

Ezponda

Ni ez naiz kontra dan-dana hasiko
ez naiz egina hortako,
bainan memento z dagoen lanakin
segitu behar baitzak.
Lau urte hotxek heldu zaizkigu
kontuak ateratzeko,
ez beldur izan gero (e)re ez da
ez mugarika faltako.

Madariaga

Era horretan senarrak diranak
gaur baztertu behar di(r)a,
le(he)nengo honek egin zituenak
orain ikusi behar di(r)a.
Bixkorra bazuen arma bat eta
nun ote dauka gurdia,
behintzat bart arratsean
niri eman dit ipurdia. (bis)

Madariaga

Izatez ere nere senarra
ez da ibili sanuan,
kotxez ibili ezin zan eta
nola joan aeroplanuan.
Bart arratsean ere dudarik gabe
penarik ez huan,
hau baino hobia berotutzeko
enbor bat hartu banuan. (bis)

Martikorena

Biok dirua irabazten degu
muga honen inguruan,
baina lana bukatzen dala
nik daukat nere buruan.
Eta orain saia gaitezen
denbora dugun orduan,
a(h)al dana hartuta hasi gaitezen
gu biok kontrabanduan.

Martikorena

Orain bizi modu berrian
e(g)in behar degu pentsatu,
lau urte hauetan kontrabanduan
poltsak ederki berotu.
Alkar hartuta egin gaitezen
biok lanean saiatu,
eta lau urteak pasatutzean
gu ederki jubilatuz.

Irieder: Orain bigarren parterat pasatuko gira. Ariko dira bata eta hirua; Miura eta Ezponda. Gaia zortziko ttikian erabili behar da. Zuek biak hiru-tanogei urtetan estudiatzen hasi zirezte. Zu Miura, ingelesa ikasten. Zu aldiz, Ezponda, latina. Miura hasita hiruna bertsu.

Miura

Hirurogei urtetan zertan interesa, hizkuntza bati emain nioke babesa. Gustukua ikasten hau da angelesa, adina izanikan zertan dugu presa.

Miura

Meza latinez zela duzu atera, angelasa ere zait hizkuntza ederra. Eta gero bildurik gu biok batera, joan ditaizke urrun han Amerikara.

Miura

Latinera joan ta zu ez eroria, nere arloak aldiz dauka bai joria. Euskaldunen ikusten hori zen loria, bidaia egile da eskualdun xoria.

Ezponda

Ikasten hasteko (e)re badugu adina, nik ikasi nahi nuke hizkuntza bat fina. Bertze denak utzita ikasi latina, le(he)ngo meza ederren hitz hoi(e)tan egina.

Ezponda

Amerikara joan zu eta ni biak, hartako ez al gira gu zaharregiak. Latinara zabaldu nahi ditut begiak, latinetik bait datoz gure oinarriak.

Ezponda

Aid(er)atu nahi duzu xori baten gisa, zahartuz geroz ez da gauza bat errexa. Gurea e(g)in dezagun ez gaitezen presa nik latina (eg)inen dut zuk e(g)izu anglesa.



Martikorena eta Ezponda.

Irieder: Orain hirugarren parterat abiatuko gara. Lehen lana; nik lehen puntua kantatuko dut eta zuek berttua osatu behar duzue. Eta bigarrena, berriz, nik lerromuturrak (oinak) emanen ditut eta zuek berttua egin.

Miura

*Andere horietan
kasu nori bira,
halanolako leike
hortikan segida.
Batzuek badute hor
nahikoa dirdira,
bainan geroa behar
baitare begira.*

Lau oinak: KORUA, BURUA, ORDUA, NODUA.

Batzutan lanean ta
holaxen modua,
bertzetan etortzen da
kantuen ordua.
Baigorriin nik goresten
biziki korua,
Erramuzpe dagona
hantxetan burua.

Madariaga

*Apainduz du gizonak
norbaiten itxura,
ni eroritzen banaiz
oraindik zentzuna.
Prailearekin puntu
jartzen berdintsura,
neure neurriak hartzen
zenbat jakintsu da.*

Oinak: AGINDU, ARINDU, MINDU, EZINDU.

Asko ordaintzeko
Madrilen agindu,
eta gure poltsa da
era hortan arindu.
Gauza horretan beti
egiten naiz mindu,
hainbeste ordaintzea
pobreak ezindu.

Ezponda

*Dirurik ez duenak
harrakasta gutti,
orain artean hola
izandu da beti.
Guk aldatu beharra
daduka norbaiti,
kanbiatu behar laike
hemendikan goiti.*

Oinak: KOLORE, LORE, UMORE, AMORE.

Gure herrian bada
hainbertze amore,
maitale dagon batek
badauka umore.
Bi maitaleen artetik
sor ditake lore,
hoiek izan ditela
amorio kolore.

Martikorena

*Jaunik ez da munduan
gure pare denik
horrek ez didala ematen
orain neri penik.
Gu bezalakuak
non dira gizonik,
holakorik oraindik
ez det ikusi nik.*

Oinak: MUTUA, EZKUTUA, FRUITUA, BURUTUA.

Ezin leike egon
gaur hemen mutua,
oraindik ez dago
hau izkutua.
Eman behar degu guk
euskaldun frutua,
kastellanca bait dago
hemen burutua.

Mendiburu

*Buriak ez du beti
larrua bustitzen,
zeren orduan naiz ni
aterbez ibiltzen.
Ni bezala bazinez
zu ere gelditzen,
bustidura ez zinueke
batere senditzen.*

Oinak: DAUKATE, KATE, ATAKE, GERRATE.

Euskalduna ainitzek
etsaitzat daukate,
hortako guretako
(di)tuzte hainbat kate.
Urtetik urte beti
hainbeste atake,
herri libre bagina
ez laike gerrate.

Jaso

*Ahoa zerratuta
egon beti zintzo,
nere kantua jendeak
entzuten du mintzo.
Hitzegitea ez du
balio berritso,
arre esaten hasi da
atera zait so.*

Oinak: ARI, SARI, NABARI, UGARI.

Ne(re) bertsoak entzuten
jendea zait ari
bainan ondorenean neretzat
izango da sari.
Ez dago esan beharrik
hortan nago nabari,
bertsoak bota (d)itutelako
aisa eta ugari.

Irieder: Orain gaur arratsaldeko azken parterat: Gartzelako gaia. Lehendabizi bertsuaren amaiera emanen dut nik eta zuek bertsu osatu eta gero gaia eman eta hiru bertsu egin doinu eta neurri librean.

1- Bertsuaren bukaera:

*Iruditzen zait alfer alferrik
bizi naizela munduan.*

2- Gaia:

Chirac eta Miterrand entzun dituzu elgarri espantuka, gartzelan edo presondegian ezarri dituzten euskal presoek. Zuk horien balentriari zer diozu?

Miura

1)

Holaxen beti gu jartzen gira
umorez gure moduan,
bainan ez gira gau egunean
ez batere lagundua.
Bazterretikan ikus loratsu
etsai horiek guduan,
iduritzen zait alfer alferrikan
bizi naizela munduan

2)

Chirac eta Miterrand
ditugu nagusi,
euskaldunak gartzelan
sartzen dira hasi.
Bainan berek hainbeste
lukete merezi,
nere partetik sartuko
nituzke le(he)nbizi.

Gizon hоек zein diran
nahi du(e)nak aditu,
gure zeruko Jaunak
nola egin ditu.
Euskaldunak hоекin
kastigatu gaitu,
hobea biok infernun
kiskali balitu.

Gizon gaiztogorikan
inon bai ote da,
sortu ziran euskaldun
guztion kaltera.
Jaunak botzen baditu
infernu batera,
neroni joango naiz
sua ematera.

Martikorena

1)

Etsai asko ditugu
gure inguruan,
hori sartuta daukat
nik nere buruan.
Egin degun baino gehiago
e(g)in behar genduan,
iruditzen zait alfer alferrik
bizi naizela munduan.

2)

Euskaldun presoak baditugula
Españan eta Frantzian,
bai eta ere orain badira
eramanak hor be(he)ian.
Ia ez digute guri utzitzen
bizitzen gure herrian
nunbait ez dute gure maitasunik
agintzen duten tokian.

Miterrand eta bere lagunak
euskaldunen aurka dira,
aspalditikan guri jipoitzen
alkar harturikan dira.
Jarri eta daude euskaldunak
izorratzeko begira,
txakur batzuek direla hoiak
pentsatzen nago begira.

Nunbait nahi dute euskalduna
hoiek betiko bukatu,
Baina inola ere gaur gu
ezin bait degu barkatu.
Geure deretxoak defenditzen
egin gaitezen saiatu,
bestela Espainia ta Frantzia
egingo dira burutu.

Mendiburu

1)

Hainbeste lan eta hainbeste guda
ni sartu nintzen lekuan,
ta euskaldunak gazte ta zahar
biziarekin irriskuan.
Ohartu gabe nihauri ere
denbora zerauta jua,
iduritzen zait alfer alferrik
bizi naizela munduan.

2)

Bihotzetik dut samindura ta
aurpegitik nago irriz,
Miterrand eta Chirac bi biak
guri burlan daude aldiz.
Beren kartzela tinko hertsirik
dituzte euskaldun ainitz,
bainan problema beti hor dago
gaixo Euskadi ez balitz.

Miterrand eta Chirac-ek hainbat
bekaizgo naski daukate,
euskaldunentzat beti zabalduz
bai kartzela ta bai kate.
Bainan borrokan euskaldun semeek
hartuko dute bai parte,
herri maite hau lehen bezala
zazpiak bat egin arte.

Ezkerra eta eskuma biek
gure gainera balantza,
bihotz erdira euskaldunari
sartu nahi dute lantza.
Baina galduko dute horiek
guk daukagu aunitz txantza,
geroa baita eskualdunena
ez otoi gal esperantza.

1)

Udaberrian sartu gerade
 orain ez gaude neguan,
 ez pentsa gero iritxi geranik
 gu azken orduan.
 Zer egin behar ote nuen
 harriturik neguan,
 iduritzen zait alfer alferrik
 bizi naizela munduan.

2)

Gaurko gertakizuna zein izan dan
 galdetu beharko inori,
 kartzelara eramanik han bazeuden
 sei txori.
 Nik ez dakit nondik libratuko dan
 lotuta dagon hori,
 bi gaiztoenak hantxen ziraden
 eta bata naiz neroni.

Gurasoak e(re) agertu dira
 kartzelako ate berritan,
 sei xardinzar berriz guardia e(g)iten
 hantxe zeuden garitan.
 Hau asmaratuko nuke
 hirutatik bitan,
 kargu ez ditut hartu nahi
 esaten dut egitan.

Gordean dagoen gizonak nola
 egingo du lanean,
 alpertutzea nik uste dut
 doala gehiengan.
 Errenditzen zaila da
 inoren esanean,
 ni orain pozik aurkitzen naiz
 libertu nauenean.

Irieder: Orain txapelketako lanak eginak dituzte baina saioa ez da bukatu oraino. "Jujek" deliberoa hartu dute, eta lehenik hasiko gira gartzelako gaian bertsurik onena egin duenarentzako eta hau Bautista Madariagarentzako bere hirugarren bertsuarengatik.

Saria, Bertsulari elkartearen izenean Mariano Izetak emanen du.

Ondoren emango dauzuet saioko puntuazioa, hiru lehenendako bakarrik.

- 1) **MENDIBURU** 549,5 puntu.
- 2) **EZPONDA** 525 "
- 3) **MARTIKORENA** 469,5 "

ETXARRI-ARANATZEKO KANPORAKETA



Amorena eta Joxe Fermin Argiñarena.

Euskal Herriko mendi, zelai, herri eta hiriak ere xuriz jantziak daude oro, guzia maindire garbi berriak estaliko bailuen. Ez da deus libratzen honen hatzaparretik, itsasertze-araino, iritxia baita, uraren erreinutza bakarrik errespetatzen duelarik. Izan ere, ez da harritzekoa, garaian gaude, negu bihotzean; otsailaren 28an, Etxarri Arana-tzeko Nafarroako bertsolari txapelketaren bigarren kanporaketa egunean.

Une batez badirudi kanpoko hotzak guzia kutsatu duela, iragarritako orduan zinema oraindik hutsik bait dago; ez sarrera banatzaile, ez bertsolari eta entzuleak ere deus gutti. Bainan, denboraren joanean, hasi da jendea inguratzen eta bertsolariak estradu gainera atera direnerako bildu gara jende mordoxka, nahiz hasi aintzinatik gure ustea gehiago bilduko zenekoa zen.

Gaurko saioak badu gauza aipagarririk. Iparraldeko bertsolari bakar bat ere ez da

gure artean eta hori azpimarratzekoa da, Joxemiel Argiñarenaren birragerpena den bezalaxe. Pozgarria izan da, Joxemiel berriro ere gure artean ikustea izan duen ixilaldiaren ondoren, izan ere, beti atsegina izan baita bere bertsotarako freskotasuna eta habildadea sumatzea (Ez da alferrik bi bider txapelduna izana), gaur ohi baino moteltxeago aritu bada ere.

Bertsolari eskolatuen presentzia ere agerian da, Manu, Izeta eta Taberna horrela sailkatzen bait ditugu. Hirurak ongi aritu dira, urtetik urtera bere maila hobetzen doazela eta etorkizunik badutela erakutsiz.

Txomin Amorena agertu zaigu, beharbada, humoretsuen gaurkoan zizta eta zizta aritu baita saio osoan zehar. Azkenik, Joxe Fermin Argiñarena aipatu gabe ezin utzi, bera izan baita gaurkoan punturik gehiena atera duena, azken urteotan erakutsi duen erregulartasuna agertuz.



Partaideak:

- 1- Joxe Miguel Argifiaena
- 2- Joxe Fermin Argifiaena
- 3- Niko Izeta
- 4- Manu Gomez
- 5- Txomin Amorena
- 6- Mikel Taberna

Gai jartzailea: Iñaki Zabaleta.

Iñaki Zabaleta: Lehendabiziko lana zortziko nagusian ariko dira; binaka. Beraz, bata eta bia. Hauxe da lana. Joxe Miguel Argifiaena aita, Joxe Fermin semea. Honek badu emaztegaia, baina ez da aitaren gustokoa. Hasi aita eta hiruna bertso zortziko haundian.

J. M. Argifiaena

Seme maitea baldin bizi nahi
bade(zu) zorionan ditxan,
aintzakotz hartu behar huke
aita zaharraren hitza.
Xehe xamarki gero eraman
nahi badek hire bizitza
ez neok komeni zaikena
den maite deken neskatxa.

J.M. Argifiaena

Bazekit ezin detala berex
inoiz hire maitalea,
bainan gogotan hartu ezak hik
nere kontseju alea.
Herriz kanpora beraren bila
zertan jo dek jo atea,
Euskal Herrian bilatu (e)zak
neska abertzalea.

J. M. Argifiaena

Hura huan sasoi
bere laguntzarekin lortu
zorionaren goia.
Bainan hik nere esanak hartzen
habil gaur doi doia,
hago lasai geroak emango
ziguk arrazoia.

J. F. Argifiaena

Ta dama batez aita semeak
egin beharko burruka
aita entzun zazu kontseju hoiek
entzuteko prestu nauka.
Itxura danez nere maitea
bihotz erdian ez dauka
baina aitak ez maitatutzea
hori ez da nere culpa.

J. F. Argifiaena

Honek ez daki baina Euskadi
bere bihotzan darama
nere maiteak berekin dauka
herri za(ha)r txit honen zama.
Zu ezkontzean galdera batez
aita nator zuregana,
zure gustokoa ez al zendun
ezkontzean hartu ama.

J. F. Argifiaena

Geroak arrazoi emango du
hizketa hoietan hasi,
bainan gaur aita gauza bat eta zu
beste ez hitzak na(ha)si
Gerora gu zer izan gintezken
gerora leike ikasi,
bainan gutxinez errespetoaz
maitatzea ez galerazi.

Iñaki Zabaleta: Hirua eta laua. Diruz eskax dabilta Nikolas Izeta eta Manu Gomez. Hogei duro besterik ez dute poltsikotan. Diru honekin, Izetak, ogia erosi nahi du; Manu Gomezek lotoan jokatu. Hasi Izeta eta hiruna bertso zortziko haundian.

Izeta

Nere patrikan ugari ez det
urre gorrizko dirua,
eta goseak nagoelako
betetzeko helburua.
Aizak hi Manu zertako daukak
lepo gainean burua,
lotoa suertea izango dek
ogia da segurua.

Izeta

Lotoan ez duk eguneroko
jatekoa hartzeko klasea
suerte asko ez diat eta
noa bide errezero.
Tripan zorrian badauzkat eta
bakar bakarrik haizea,
gero gerokuak izango (d)ira
le(he)nbizi kendu gosea.

Izeta

Nik behintzat Manu esango dizut
dudan asmo hau garbia
ikusten dezu goseak nola
dadukaten aurpegia.
Jesukristok hau esan zun eta
neretzako da egia,
izan dezagun bizi artian
eguneroko ogia.

Gomez

Bainan ogiak ere baditu
Niko makina bat kako
jan eta gero geldituko haiz
diruz eta gosez flako.
Lotoan dena gastatutzea
ez da nere kalterako,
irabazita edukiko det
janaria urte guztirako.

Gomez

Niko gertatzen zaizkigu guri
hemen hamaika desgrazi
hala ta guztiz lotoa diot
askoz hobe dela kasi.
Diru guztia hartu ezazu
ta lotoan jartzen hasi
hola ogia bizi guztian
e(d)uki ta baietz irabazi.

Gomez

Une bateko ase eta
bizi guztirako zama
ogia janez Niko hori da
gertatuko dana.
Nik egingo det une honetan
zu ta neretzako plana,
ogia eta lotoa jarri
dezagun guk erdibana.

Iñaki Zabaleta: Txomin Amorena ganaderoa da, esneketaria. Euskal Herriko esne kooperatibak elkartzea nahi du. Mikel Tabernak kooperatibaren ofizinetan lan egiten du, eta beldur da lanpostua ez ote duen galduko. Hasi Taberna eta hiruna bertso zortziko haundian.

Taberna

Nere laguna hartu ezazu
oraingo honetan arreta
fusio horrekin nago oraintxe
pixka batean erreta.
Hori adituz neri beztutzen
zaida erabat kopeta
abeltzain horiek guttixo xamar
produzitzen duzue ta.

Amorena

Esne lanean hasi naiz eta
hauxe zaitut nik er(ra)teko
gure bizian traba asko,
degu ongi izateko.
Orain ofizina atera
degula guk e(re) saltzeko
ta zure gauza beldurgarria
dezu lana galtzeko.

Iñaki Zabaleta: Orain zortziko ttikian ariko dira bertsolariak baina bikoteak aldatuta. Bata eta hirua; joxe Migel eta Izeta, beraz. Zu Joxe Miguel bankoetxera sartu zera lapurreta egitera, baina beste ebasle bat aurreratu zaizu, Izeta hantxe baitago dirua poltsan sartzen. Hasi Joxe Miguel.

J. M. Argiñarena

Asmo batek bankura
gaur ni naraman
eta esango det dana
orain nola dan.
Boltsa batekin hango
..... kolpe bat eman,
Izeta ez hitzakela
danak eraman.

J. M. Argiñarena

Kunplituko diat nik
gaur hire ordena,
arrastoan ibiliko
ote gaur nordena.
Asmo berakin zetor
gaur Argiñarena,
gutienez egin behar
dizkan erdibana.

J. M. Argiñarena

Orain biek gabiltzek
hemen estu-estu,
bainan ez dek hitzegin
arrazoitan juxtu.
Erdibana egin ditzagun
hobe dala puztu,
nik ere bazebilkít
hik hainbat arrisku.

Izeta

Beste bat lapurtzera
hortxen det ikusi,
eta mesedez orain
joan hi ihesi.
Ni sartu aurrena
ni nago le(he)nbizi,
kunplitu (e)zak ordena
nahi badek hik bizi.

Izeta

Badakik hor jartzen duk
hor dago irteera,
eta joan hortikan
ez bada kaltera.
Bestela emango dit
tiro goitik be(he)ra,
badago bankurik ta
jun beste batera.

Izeta

Lehen e(re) esan hemen
aurrena naizala,
eta ezta kontura
hau dek hau petrala.
Eta orain joan hadi
segittun bestela,
kopetaren erdian
sartuko dit bala.

Iñaki Zabaleta: Orain bia eta bosta; Joxe Fermin Argiñarena eta Amorena. Joxe Fermin, kainabera eskutan, arrantzan aritu da goiz osoan erreka bazterrean, baina esku hutsik etxeratu behar. Bidean hor ikusten du Txomin Amorena mutiko gaztea, saskia amuarrainez beterik. Hasi J. F. Argiñarena.

J. F. Argiñarena

Zuri hitzegiteko
serio nagota,
hemen gaur tranparen bat
gazte badago ta.
Amorrain bat ezin dut
hainbeste kostata,
honek saskia bete
lejia botata.

Amorena

Egun guzia pasa
duela honek lanean,
ta biok ibili ga(ra)
hor lan berean.
Nik zizarea botatzen
nuen urean,
hunek berriz sasia
hor lurren gainean.

Iñaki Zabaleta: Orain bertsolarientzako lan bikoitza. Lehenik nik puntua eman eta bertsoa osatu behar dute, eta gero nik emandako lau oinek bertsoa osatu.

J. M. Argifarena

1)

*Jakingo duzu nola
dantzatu mingaina...*
hortan oso bizkorra
ni ez naiz baina.
Saiatuko naiz halere
gaur alajaina,
luzitzen hemen gaur
nere gorputz liraina.

2)

Oinak: Osa, goza, poza, arrosa.

Hemen dagon giroa
hauxen da arrosa,
aspaldin ez nu(e)n goza
gaur daukaten poza.
Bertso saio on bat
nahi nuke osa,
jendeak goza dezan
emaitzaren goza.

J. F. Argifarena

1)

*Orain aurkitzen zara .
kanta beharreen...*
halako zirikatze
bat det bazterrean.
Ez zerade ausartu
leku ederrean,
kristonak entzungo ditu
gaur nere aurrean.

2)

Oinak: Negu, zeru, eredu, erregu.

Aurtengo otsailak
zirudian zeru,
bainan natura degu
hemengo eredu.
Bi aldiz egin gare
zerura erregu,
golpetikan hara jaunak
bihurtu da negu.

Izeta

1)

*Hona etorri zara
itxura onean...*
jendea aditzera
baitare aurrean.
Ta gaia jartzen zu
hortxen bazterrean,
pasako degu aguna
giro ederrean.

2)

Oinak: Ezker, ezer, piper, alfer.

Badakizue zuek
ni naizela alfer,
eskola jua gabe
egiten det piper.
Ta holako martxakin
ikasi nik ezer
kalabaza ugari
ditut horren esker.

Gomez

1) *Astegunez lanean
ta orain bertsotan...*

zoritxarrez ez gera
jarduten askotan.
Nik behintzat txit gustora
nago toki hontan,
ta gustora berriz
hona etortzekotan.

2)

Oinak: Ero, bero, egunero, gero.

Lau oinak eman eta
kantatu (e)zak gero,
horrela aurkitzen haiz
orain nahiko ero.
Ez bait naiz saiatzen ni
hontan egunero,
halare bota nahi det
ondo eta bero (bis).

Tirrin eta tirrin zenbat holako
jotzen dituen kolpian,
hainbat nahigabe eman dizkida
zu joan dan aspaldian.
Ixildu zaitez alferrikan ba
ari zara ta lanean,
ixiltzen ez bazera sartuko
zaitut almohadan azpian.

J. F. Argiñarena

1)

Hainbeste mitin ta politiko
hizketan hor egunero,
gehiegi hitzegiten da hemen
emaitza bate ez gero.
Batasunean Euskalerrria
gerora ere hortxe bego,
nahiago nuke askatasuna
gure eskutan balego.

2)

Despertadore hots hori sarri
guretzat ez da atsegin,
bainan bestera guk aginduta
biharamonean hotsegin.
Guk ere mende ote gabiltzan
aurrez nahi nukena jakin,
despertadoreak jotzen baitu
gizona esnatu dadin.

..... astele(he)n goizez
sarritan desengainua,
hemengo inork egia esanda
bai al dio karifua.
Beste agindu bat ematean
erlojuari

ia zer goizez jotzen didazun
askatasun doinua.

Erlojuaren mende gaudela
esatea degu errez,
bainan guk agintzen bait diogu
berak egin dezan aurrez.
Eta goizean txintxo fitxatzen
lantokin bere eskerrez
aurrera ere jotzen ta entzuten
jarrai dezagun mesedez.

Zenbat holako egin dizkidazun
zu zera nere etsai,
egoten zera sarri neri
jotzeko lo artu zai.
Bainan nik esan beharko dizut
albotxo hontatik pasa hi,
ixildu hadi eta guk biok
lo egin dezagun lasai.

Izeta

1)

Euskalerrrian burrukatzen da
gogor eta bizi gero
eta hortatik nolabait ere
zerbait gentzake espero.
Bainan burrukan Madrilen kontra
hemen gabiltz egunero
nahiago nuke askatasuna
gure eskutan balego.

2)

Atzo gauean pasatu nituen
parrandan orduak tinko,
eta goizeko bostetan ere
ez nintzan ni etorriko.
Eta orain zortziak dira
eta hortxen gaude kito,
baina alferrik joko dezu zuk
ni ez bait naiz gaur jeikiko.

Katxarro hauek mundu honetan
gauza aldrebesak dira,
nahiago nuke txori doinuan
gisa antzekoak balira.
Eta orain jotzen ari da
baina zer egingo det guztira
jo ta itzaldu ta jarriko det
almohadaren azpira.

Esan bezala oheratu naiz
bart arratseko bostetan,
ta ederki asko epel ta goxo
hemen nagoen mantetan.
Eta hor dago txirrina joez
borrokatzen det benetan
leihotik behera botako dizut
a ber hiltzen zeran bertan.

Taberna

1)

Azken honetan hemen gabilitza
gero eta estuago,
hainbat gauza ilun ikusten dugu
berdin ipar eta hego.
Burua hausten nondikan irten
ia bihurturik ero,
nahiago nuke askatasuna
gure eskutan balego.

2)

Zure ahotsaz egunon esan
didazu eginik kantu
eta bertsoan nolabaitean
eginen dut arrapostu.
Hementxe bero-bero nengoen
eta beharko dut poztu,
egia esan zure kantuak
ez nau ni gehiegi poztu.

Zure kantua entzun ondoren
agurtu behar dut dama,
eta elkarri eman beharra,
orain gustoz muxu bana.
Askotan ezin jasan izaten
dut zure kantuan zama,
oroitarazten bait dit egin behar
dudala geroan lana.

Zure hots entzun ondoren
jeikitzeke nago nagi,
erran bezala gustagarria
ez da izaten gehiegi.
Jeiki beharra maitia agur
eta beti legez segi,
gaurko eguna atzokoa baino
hobea gertatu bedi.

Iñaki Zabaleta: Epai mahaiak ere heuren lana egin dute eta haxe izan da beraien erabakia:

- 1) *Joxe F. Argiñarena* 532 puntu.
- 2) *Mikel Taberna* 520 puntu.
- 3) *Niko Izeta* 514 puntu.
- 4) *J.M. Argiñarena* 506 puntu.

Gartzelako bertsoarik onenaren saria Mikel Tabernari bere azkeneko bertsoagatik.



bozkariotzen bada ere, ez du uste Xalbadorrek, hortik berehala bertsolariarik ateratako denik "bainan egin daike, ene ustez gauza horrek balio du ainitz, Ikastoletan erakusten duten horrek; orain arte Iparraldeko gaztetan ainitz bait zen bertsoa zer zen ez zekitenak eta bertsoa nola egiten zen eta teknika aldetik eta batere... eta gero haiek nola nahi duzu joan ditene bertso saio baten entzuterat".

DENBORA BATEKOAK DIRA BERTSO SAIOEZ INTERESATUKO EZ DIRENAK.

Komentatzen dugu honetan, txapelketa honetako Iparraldeko bi kanporaketatan behinik behin, entzulegoari dagokionez, biziki nabaria zen berezitasuna, hau da, alde batetik jende heldua eta bertzetik haur ttipiak ziren nagusi, erdi tarteko gazterik nekez ikus zitekeelarik; kate horretan denbora batez etendura bat egon dela, alegia.

"Hortakotz" komentatzen du Xalbadorrek "bihotzez eskerrak ematen dizkiet nik, haurrek eta gazteek ikasiko dutelakotz bertsoa zer den eta interesatuko direlako. Hortarik etor dilaite gero ateratzea bertsolari zombait". Hizkuntzaren atzerakadak, euskararenak noski, hortan zerikusirik ote duen galdetzen diogunean "bai, bainan ez, ez. Ez da hori dena, Urepelen denak dakite eskuaraz nahiz eta zorigaitzez frantzesez ni baino gehiago hitzegiten duten, bainan jakin denek dakite eskuaraz, batek ezik; bainan ez dute. Zuk erraiten duzun denbora batetakoak izan dira bertso saioez interesatuko ez direnak eta ez dakite bertsoa nola egiten den eta ez dute ulertzen ze nekea den bertso baten egitea, ze mereximendu duen bertsoa egiten duenak eta orai ordea, ikastoletan dabilzanak jakinen dute hori".

Iparraldeko bertsolariak hain kantariak izatearen arrazoiak galdetzen diogunean, zera dio Xalbadorrek: "Kantu ainitz daki hemen jendeak, bazekien, beno orain ere, eta kantu zahar ainitz eta kantu zahar hoietan ainitz, bertsoarako neurrietako kantuak dira, doinuak badakizu; eta kantatzeko zaletasuna ere bazen hemen, hori izanen zen hegoaldean baino gehiago.

Dena den doinuena ordea, handik etorri da. Bertsolariak lehenago hemen, aita zenak eta Mattinek eta Felix Iriartek eta.... beti doinu berean kantatzen zuten, bi edo hiru doinutan bertso saio guztia. Hala eta guztiz, doinuen garapen hori handik etorri da, hori Amuritzak...".

NAFARROAN GORA EGIN DU BERTSOLARITZAK.

Bertsolaritzaren egoera Nafarroan ea nola ikusten duen galdetzen diogunean, eta batez ere Gipuzkoakoarekin eta Bizkaiakoarekin ere konparatuz "bai, bai, dudarik ez dago beherago gaudela, bainan egin da Nafarroan ere ainitz aintzina. Begira, zuk ez dakit gogoratzen duzun bertso txapelketak hasi genituelarik Lesakan, saio koxkorrak egiten genituen. Orain ere nahiko koxkorrak egiten ditugu baina orduko aldian saio politak egiten dira orain. Nafarroan gora egin du bertsolariak nahiz eta.... bistan da, Xalbador galduz gero, haren mailara heltzen denik...."

Azken aldiotan bertsolarien artean eztabaida frango sortzen ari duen bertze afera honi buruz; txapelketak bai, txapelketak ez alegia; galdetzerakoan honela dio: "Begira, txapelketak laguntza haundia emaiten dio honi, giroa suspertzen laguntzen du, bistan da. Hori ikusten den gauza da, txapelketa egiten duk eta ikustekoa da zenbat entzule izango den han. Horrek ainitz balio du gero!" Segidan, eta polemika horren barrenean sarritan aitatu izan den bertze honetaz, hau da; bertsolariak diruaren truk kantatzearena eta holakoez... zer deritzaion... "Ez, ez da hala, ez da egia. Nik badakit zein neketan ibiltzen naizen lanak utzi eta joaiteko neguan eta ez naiz ni bertsoetara diruagaitik joaiten. Nahiago nuke udan debalde joan neguan ordainduta baino. Ez dakit baden bakar zombait diruagaitik...."

Kontraposizio moduan edo, tradizionalki eta garai batean bertso eskola izan diren eta bertsolariak lantzeko xarma edo ukida berezia ematen dioten ostatuetako bertso saioez zera diosku Xalbadorrek: "Ostatuetan kantatzen ziren bertsoetatik ere galtzeko hobeak ziren ainitz e! baino, hori, Xalbador eta Mattin holako





bertsolariak atera ziren gero bainan haien eskerrak ostatueta kantatzen zituzten bertso txarrei. Nork daki Xalbador eta Mattinek zenbat bertso txar kantatu zituzten! Eta hala txarrak kantatuz trebatu ziren eta txarrak kantatuz ikasi zuten onak kantatzen. Nik ikusi dut aita magnetofoiak abiatu zirenean, eta magnetofoiak abiatu orduko Xalbador trebatua zen, bainan nik ikusi dut erraiten: bertso hori ez dut nahi magnetofoiatzea gero e! bainan orduko hartuak izanen ziren bainan.... hori ez e!. Eta nik erran nion behin: horrela zu bertsulari ona aise izanen zira; gustoko bertsuak dituzunean haiek grabatzen utzi eta txarrak ez!".

EGITEN AHAL DEN PIXKA HAU EGINEZ, BERRIAK ERE ATERA DITAIZKE, ZENDAKO EZ! ARTEAN EUTSI BIZI!

Bertsolaritzaren egungo egoera Nafarroan eta Iparraldean bereziki ez bada gehiegi alaitzekoa ere, itxaropena ez du galdu "izan balitz gazte bat hasia edo, esperantza gehiago izanen nuke bainan,

beno, oraindik makurrik ez bada, egiten ahal den pixka hau eginez eta esperantza zendako ez izan aterako dela gibeletik norbait, zendako ez du atera behar eta Xalbador izan zen bezalakoa izan. Berdin, berdin egin daike. Guk egiten ahal bagenu gehiago pozik eginen genuke bainan, egiten ahal den pixka hau egitea iduritzen zait honetan dela bertsolaritzak bizia atxeki deitzen eta, atera bada gu baino hobe aisa aterako da errez eta ateratzen bada hobe eta artean eutsi bizi".

Azkenik, aurtengo edizio honetaz zer nolako inpresioa atera duen jakin nahi izan dugu "bai, ni gustura nintzen eta saio polita izan zela iduritu zitzaidan. Gero irratian entzun nuen eta irratian entzunez iduritu zait pentsatu nuen baino ahulxeago e!" eta bukatzeko aipamen berezi bat egin nahi izan du M. Arozenaz "Esperantza haundia hartu dut zerarekin, entzuteko goxoa da oso eta Arozenarekin, baina esperantza eta poz ikaragarria hartu dut hori ikusiz! . Holako baten beharrean geunden eta errextasun haundia du".

Irieder

Orain hirua eta laua; Alkat eta Xalbador. Zu Alkat hirian bizi zira, bainan mendizale izaki eta penaz ikusten dituzu zonbait bidexka hondatu dituztela, ohianean pistak, elurreko pistak egin beharrez. Zu Mixel, ohian hortako lantegi batean egurgile zira. Hiruna bertsu zortziko haundian mendizalea hasita.

Alkat

Menditarrentzat bizia neke
herri honetatik ageri,
ogibidea zaindu dezagun
uztartu gaiten elgarri.
Hoinbertze gauza eskein beharrez
kanpotik dago zeineri,
galda nezake utzi mendia
otoi menditar hoiei (bis)

Alkat

Elurrarekin egurrarekin
batzuek dituzte lanak,
bihotz barnera sartzen zerauzkit
lagunak orain emanak.
Ogi gosean hirian ere
egun badira andanak,
herritik kanpo joan behar du
ogirikan ez daukanak (bis)

Alkat

Elurra eta egurrari nik
egin nahi dut agurra,
bien aldera joaiten bait naiz
ni guziez barura.
Bainan hirian bizibidea
enetzat dago segurra,
eta pobreen ogibide da
elurra eta egurra. (bis)

Irieder

Orain bortza, seia eta zazpia. Laster Herriko Etxerako botoak edo hauteskundeak heldu dira. Zu Zeberio, azken urteotan alkate zira eta karguan jarraitu nahi duzu. Zu aldiz, Aburuza, alkate postu hori hartu nahi zenuke. Zu Arozena boza emailea zira. Hiruna bertso zortziko haundian, orainarteraino alkatea izan dena hasiz, Aburuzak jarraitu eta boto emailea azkena:

Xalbador

Elurrera jin nahi dutenek
hemen hoinbertze zorion,
bilatzen diet ai ikusten duk
ohiana zer gisan dagon.
Herri bideska hok ikusteak
lagun ez deak egin on,
hik ere hemendik joan gabe
hemen behar huen egon (bis)

Xalbador

Ohianetikan bizi modua
lagun balaikek segurra,
ta ohian hortan arrotz horiek
ikusteaz arrangura.
Aurki ta laster horra hiritar
horri egin zok agurra,
bertzenaz arrotzak hartuko diek
elurra eta egurra (bis)

Xalbador

Horren ofizioari duk hik
ihes hire arabera,
ta lagun batenganik ez naiz ni
horrek uzten alegera.
Hemen ere bizi bait litalke
etorri ohian aldera,
elkar lagunduz biziko gaituk
arrotzak botaz kanpora. (bis)

Zeberio

Orain artean izan bait dira
zabalik herriko ateen,
eta besteentzat izateko ere
hor bazegoen patente.
Orain artian txukun haskua
izan banaiz ni alkate,
berriro ere izateko
ez al naiz konpetente.

Arozena

Alkaterikan onena behar
hona nere a(ha)leginak,
baina uste dut ho(r)ik biek ere
ez direla oso finak.
Batek laneko gogorikan ez
besteek kontatzen eginak,
nere iritziz hoiak biak dira
herriarentzat berdinak.

Aburuza

Gogor xamarra azaldu zera
oraingo hontan Arozena,
hori entzunak nere barruan
sortu du holako pena.
Etorkizuna neregan dago
izan (e)zak itxaropena,
ez al dek ikusi nola dagon
Zeberio hau gizena.

Zeberio

Herri batean alkate izateak
baditu bere arrisku,
botatzaileak berak orain ne(r)i
egiten bait dit hor txistu.
Horrek esandako txotlokerik
egingo ditut nik a(ha)ztu,
lehen bezalaxe kaletarrak eta
baxerrik egingo (d)itut babestu.

Arozena

Zergak kentzeko jaun berri honek
bai omen dauka a(ha)lmena,
hautagai hoiak beti daukate
eskeini nahiko ordena.
Eta hau da orain zuen aurrean
nik galdetu nahi dudana,
herria bera ez ote dugu
guk alkaterik onena.

Aburuza

Konpetentea diola dio
eta horra ba jakina,
lau urte behintzat pasa ditu ta
hutsa da honek egina.
Alde guztitan zabaldu dezu
alkate gauza zikina,
ta Arozena oraintxen duzu
zuk hemen aukera fina.

Zeberio

Boto emaileak egin baitu hor
txarrak garala galda,
baina alkate txukuna izan naiz
nere gorputz ta azalda.
Hobeagorik herritxo honetan
gaurkoan hortxe bai al da,
botoa zuri nola eman
gorputzik ez al da.

Arozena

Gizena da bai eta etxe bat
egin du gure kontura,
alkate txarra izandu dala
dator denaren burura.
Eskatzen diot ez dadilela
etor ene ingurura,
hobe genduan bere amatxok
ez bazun sortu mundura.

Aburuza

Baserritarrei eta kaletarrei
egiten die babesa,
orain artean aizu laguna
izan zara aldrebesa.
Ta Arozena entzun ezazu
une honetan promesa,
Zerga guztiak kenduko ditut
nahizta izan nekeza.

Irieder

Orain bigarren parterat pasatuko gira. Ariko dira bata, hirua eta zazpia. Zu Olano, denda edo komertzio ttiki baten jabea zira. Zuk aldiz, Alkat, Hipermerkatu bat eraiki nahi duzu ondoan. Zu Arozena eroslea zira. Hiruna bertsu zortziko ttikian, dendaria hasiz, Alkatek jarrai eta eroslea azkenik.

Olano

Ez naiz inkomoratzen
gaurguan ezerke(re),
ta beldurra gutxigo
gutxitan inorke(re).
Honek jarria digu
gaur hutsaren truke,
bi emango dizkizut
honek bat be(za)in merke.

Alkat

Eroslea zerauku
egun atzerian,
komertsanta aldiz
ongi ta lorian.
Nik ere denda on bat
daukat errabian,
prezioa ttikia ta
magazin haundia.

Arozena

Beraz bera dijua
gauzaren kostera,
batek merke ta bestek
merkego ostera.
Ni ez nijua hemen
demandan hastera
baina etxetik urrun
ez noa eroastera.

Olano

Ez.nuen Alkat gaurkoz
nik askorik uste,
denda hortan badauzka
gaur milaka traste.
Bainan erosle sinits
etzazula uste,
onik ez dauka ezer
txarrenak hainbeste.

Alkat

Onetik daukadana
nik erranen dautzut
haundi aberats naiz
eta burua xut.
Biek hor espantuan
tirrit eta turrut,
hamabost egun gabe
nik itoko zaitut.

Arozena

Onena otoi zatoz
aizu txiripito,
ttikia ito nahian
bakarrikan kito.
Bainan gauz onik ez dut
gaur nik horiekiko,
biek ere baitira
hoik nahiko ijito.

Olano

Egiten ditut Alkat
albotikan galde,
beraz ijitotzeko
presturikan zaude.
Uste txarrean lagun
gaurkoan hain gaude,
zu izorratzeagatik
salduko debalde.

Alkat

Debalde saltze hori
ez daike betiko,
haundiak nonbaitik
baitako jalgiko.
Bertze hau ere luzaz
ez da ageriko,
zuri hitzeman ta
neri erosiko.

Arozena

Alkatek lurpera du
bere konduta,
erosleak e(re) bere
aukera nahi du ta.
Olano hortxe daukat
begitan hartuta,
beraz debalde noa
horreri kenduta.

Irieder

Bia eta bcsta; Fagoaga eta Zeberio. Zeberio, ostatuan afaldu eta oharu zara boltsa galdu duzula eta dirurik ez duzula ordaintzeko. Fagoaga, zu ostatuaren jabea zira. Hiruna bertsu zortziko ttikian Zeberio hasita.

Zeberio

Ederki nago orain
ondo bazkalduta
baino agertu bait zait
kristoren konplota.
Nere karteratxoa
inortxok o(ho)stuta,
orain bazkaririk
ezin pagatuta.

Fagoaga

Inoiz ez det izandu
hain kliente ahula,
aurren txuleta jan du eta
ondoren angula.
Inork ez nau egin neri
horrelako burla,
ta gehiago zu honera
ez etorri sekula.

Zeberio

Hik arrazoa bota
neri kolpe baten
eta kanpora irtentzeko
hots haundiak aten.
Ez al duk izango hori
taberneran kalten,
ez hadi apuratu
pa(ga)tu beste baten.

Fagoaga

Ondo jantzita sartu da
ta boltsatik pobre,
ez nuen pentsatzen zanikan
hau hain mixerable.
Gainera beste kopa bat
egiten zun galde,
le(hè)n bait le(he)n begin bistatik
egin (e)zazu alde.

Zeberio

Nagusia ez al dezu
harrotu mingaina,
hitzari hartu behar zaio
daukaten tamaina.
Bazkaria pagatzeko
e(g)ingo det a(ha)legina
platera garbitzen eman
bazkarin ordaina.

Fagoaga

Eskeintza hori e(g)iteak
ni ez nau harritu,
a(ha)l dan bazkaririk onena
nik diot serbitu.
Ta hau gaur egin behar dezu
zuk txintxo aditu,
gustora jarriko nuke
hautsiko ez balitu.

Irieder

Azken bikotea; Aburuza eta Mixel Xalbador. Zu Mixel medikua ikustera joan zara, eta sendagileak hain gustukua duzun txerrikoa jatea debekatu dautzu. Medikua zu zara Aburuza. Hiruna bertsu zortziko ttikian Xalbador hasita.

Xalbador

Bisita bat nahi nauzu
medikua egin,
nik ez baitnatzu zihaurrek
dukezu atsegin.
Estomakatik bait dut
egun guzietan min,
hori nundik heldu den
nahiko nuke jakin (bis)

Aburuza

Honuntz etorri zera
eri zeralako,
eta osasunez
zu zabilta flako.
Erantzuna eman dizut
zeure onerako,
eri zaude zu orain
jana duzulako (bis)

Xalbador

Urtean behin bait naiz
ibiltzen bestetan,
mozkor batzuek biltzen
ditut bai artetan.
Jaun medikua erran
zer egin dezaketan,
edozer jana dutan
nihaurren kaltetan (bis)

Aburuza

Nere esanarekin
ezin dut kontsola,
txerrikiak behin pein
le(he)n bait le(he)n kontrola.
Izorratzen ari zara
erabat odola,
eta ahantzi ezazu
zehirrekin alko(ho)la.

Xalbador

Baserrietan bada
hainbertze xerriki,
bertze jatekorik guk
kasik ez izanki.
Deus ez edan behar da
xingarra ez hautsiki,
xutik zer demonio
behar nau atxiki (bis)

Aburuza

Hau bideratzea gaur
erraza ez da ta,
hartu ezazu orain
nere errezeta.
Txingarra jaten dula
ta gero txuleta,
hobe dituzu denak
etxean gordeta.

Zeberio

*Ogia irabazten
izerdi ugari,
Egunero saiatzen naiz
ibiliaz larri.
Zergatik gai hori gaur
dezute jarri neri,
ikus al diazu
mutiko elbarri.*

Aburuza

*Bestarik besta gabiltz
sasoi ederrean,
behintzat saiatzen gera
horrela lanean.
Edozer gauza orain
daraman aurrean
sasoa aurkitzen da
beti indarrean.*

Arozena

*Munduan den gizonak
behar du pentsatu,
eta ez horren arin
jendekin kontatu.
Behartsua beti aurren
haundiak du hartu,
hori egia da ta
entzule barkatu.*

OINAK: Hasi, nahasi, ikasi, sasi.

Bertso eskola batian
egin ginan hasi,
hantxe ibiltzen gara
jota bera nahasi.
Baztarrak nahastuta
ebaki sasi,
holaxen egin nahi degu
bertsotan ikasi.

OINAK: Laburra, ximurra, agurra, gezurra.


Gaurko saioa nahi det
entzule laburra,
eta jartzen dizut
kopeta ximurra.
Le(he)n bait le(he)n egingo dut
hemendik agurra,
honekin ez dut erran
batere gezurra.

OINAK: Gaztea, emaztea, atea, hastea

Gehiago egin dut hemen
bertsotan hastea,
nahiz animatzera
dator emaztea.
Atzean hantxe dago
lirain ta gaztea,
ihesi nijua ta
ideki atea.



Eusebio Fagoaga eta Olano.



Alkat

1) Badakizue euskal bizitza
bakotxarentzat errex ezta,
hargatik denek maitatzen dugu
batzutan e(g)iten besta.
Gero hobe da ikusi nahiz
izango nuke nik kesta,
gaurtik aurrera bizi behar dut
itxaropenez beteta.

2) Egiari bihotzez
egiten dut agur,
bainan egia ere
jendea da beldur.
Bide onena dela
Alkat beti segur,
erran behar dut bada
ez gelditu uzkur
gezurrak betidanik
zangoa du labor (bis).

Hoinbertze auzi bada
nunnahi gaur egun,
bakotxaren bizitza
ez al zen gu ilun.
Egiaren bidea
hertsi ta urrun,
bainan denek egia
har dezagun lagun
herriko gezurtiak
salhatu ditzagun (bis)

Gezurra merke dela
nunnahi ohartzen,
baina gutarik gutti
al dute onartzen.
Gezurra entzutean,
ni ere oldartzen,
egia laguntzea
dautzuet galdetzen,
gezurrarekin ez da
deusere salbatzen. (bis)

Xalbador

1) Bertsolaritzaz egiten ditut
nik hainbertze pentsaketa,
bertsolaririk gure gaztetan
ez da ateratzen eta.
Hiru alaba gaur entzutera
hunat etorri zaizkit eta
gaurtik aurrera bizi behar dut
itxaropenez beteta.(bis)

2) Makur haundia egin dezazke
hori da gauza segurra,
bainan hala ere gure gobernu
gizonek hori ardura.
Dabilateta egun hauetan
ez horri egin agurra,
Chirac-ak eta Miterrandek gaur
baliatua gezurra.

Gezurrak barne iluna duke
txuria badu azala,
bainan hainbertze hau dabilate
egia balitz bezala.
Ni izan arren naizen gizon txar
xumea eta apala,
gezurretikan gure jainkoak
beti begira nezala.

Ez dira behar hemen nahasi
gezurra eta tratua,
gezurra zer den bakotxa bera
bai ditaike ohartua.
Ta zortzigarren manamenduak
hau hola debekatua
nehork ez ote du kentzen ahal
gezur madarikatua.

Arozena

- 1) Ez dut gustoko sekulan izan bertsoaren txapelketa, nahiz ta adinez aurrera joan ni ezin egon gordeta. Epea ere ez da bukatu nahiz zuek egon haseta bizi moduan izan behar da itxaropenez beteta.

- 2) Mundu honetan zuzen joan behar hor dago gure agurra, nahiz ta gutxitan zuzena izan hor da nahi dugun apurra. Bide zuzenen ez dihoanak egin lezake agurra, bide bidetako etsaia baita ezpainetan dan gezurra.

Kontu kontari ibiltzen dira ustez hain bide haunditan, politikoen martxa harturik nahiz gaizki irten erditan. Faltsokeria ezaguna da begiraturik begitan, naizen apurra nahiago dut nik behintzat izatea egitan.

Egi bidea dugu zuzena hor dago gure arnasa, nahiz ta askotan geran gutxitik bide zuzenez ez pasa. Bainan txintxoa izatea ere nolatan ez da jolasa, egi bidean nahi nuke hemen nik eman nere arnasa.

Irieder: Epailleak eman dute deliberoa eta emanen ditut lau lehenen izenak.

- | | |
|--------------------|---------------|
| 1.- Mixel Kalbador | (562 puntu) |
| 2.- Alkat | (550,5 puntu) |
| 3.- Arozena | (524 puntu) |
| 4.- Aburuza | (521 puntu) |

Gartzelako gaian bertsorik onenaren saria Ernest Alkati emanen zaio bere hirugarren bertsoarengatik.

izan da gure galdera. "printzipioz ez da kontutan hartzen, baino gero puntuazioa ematerakoan nabaritu egiten da. Ezin da berdin puntuatu minutuko tartea izan duena edo berehala botatakoa. Gainera, espektatiba faltsoak sortzen dira. Bertsolari batek minutu bat hartu eta gero bertso xarmagarria ez badu egiten, sortutako espektatiba guziak porrot egiten dute. Dena dela, neurtu ezin daitekeen gauza da. Ezin da erran minutu erdia pasatzen duenari honenbertze puntu guttiago eta abar. Halere, argi dago puntuak ematerakoan nabaritu egiten dela".

ESKOLA ZAHARREKOAK ETA BERTSOLARI BERRIAK; BI MUNDU DESBERDIN

Gure ustetan txapelketak duen alderdi kaltegarria agertu nahi izan diogu Epaltzari. Bertsozale garen guziok penaz ikusi izan dugu nola egiazko bertsolariak -eta ez dugu izenik aipatuko- txapelketetan kanpora gelditzen diren, lehiaketa horrek dituen arau zehatz eta konkretuetara nolabait makurtzen ez direlako edo teknika hori behar bezala menperatzen ez dutelako. Bat etorri da gurekin Aingeru, baino irtenbidea bilatzea ez da gauza erreza. "Bi bertsolari mota daude eta hori Nafarroan inon baino nabarmenkiago ikus daiteke. Talde bat gaztea edo gazteagoa, betidanik txapelketaren inguruan mugitu izan dena eta ohitura haundia duena txapelketak agintzen dituen arauak betetzeko. Talde horrek, garai konkretu batetan sortu delako, burua horretara egina dauka. Bertze batzu, aldiz, plaza-gizonak dira eta aisago aritzen dira talde koxkor baten aintzinean gai librean edo gai-jartzailerik gabe. Batzu, batera zein bertzerara ongi egokitzen dira baina ez denak. Badira txapelketarako bakarrik balioi duten bertsolariak eta txapelketa inguruan eratu diren baldintzetara egokitzen ez direnak badiren bezala. Hauek ia adintutako bertsolariak dira, eskola zaharrekoak eta nahiz bertsolari onak eta plaza-gizonak izan, ez dute emaitza onik lortzen txapelketetan. Eta honek pena haundia ematen du. Argi dago bi bertsolari mota daudela, bata eskola zaharrekoa, bertsolaritzaren kalterako galtzen ari dena


eta bertzea, berria, ikastola eta txapelketaren inguruan sortu dena. Onena, bi bertsolari mota horiek mantentzea litzateke, baina ez dakit hori lortzen ari ote garen. Orain bertsolari txapelketa dela eta ez dela horren inguruan sortzen ari den eztabaida onuragarria izan liteke. Azken batean ona da planteatzea bertsolaritzaren lekua ez dela txapelketa. Espektakulo bat izan daiteke bertsolaritzaren onerako ere izan daiteke bertsozaleak sortzen dituelako, baina bertsolaritzaren helburua inondik ere ezin liteke txapelketa izan. Bertsolariak eta bertsoak ez du zergatik bere inguruan epaitzen, seikote serio baten beharrik eta ezta gai-jartzailerik ere".

GAIK; ENTZULEGOA ETA BERTSOLARIEN ARTEAREN OREKA LORTU BEHAR.

Aurten eta aurreko urteetan ere, Iñaki Zabaletak eta Irieder-ek bete duten lanari gai-jartzea deitu izan arren, hori ez da egia, ez osoki bederen. Horiek gaiak emateko bakarrik egin ohi dute Zabaletak Etxarri garbi aski erran zuen legez. Gaiak jartzeko eginkizuna epaimahaiak betetzen du Aingeru erran digun bezala. "Gaiak denon artean jartzen ditugu. Bakoitzak gure gaiak eraman eta gero guziak bildutakoan, batzuk baztertzen ditugu eta kitto. Beno, batzutan kanpoko jendeak, bertsozaleren batek bakarren batzuk ekartzen dizkigu, baina ez desiagarria litzateken adina. Gaien aldetik, aurten zenbait kritika jaso ditugu, nolabait gatz guttikoak edo xinpleegiak zirela erranez. Iaz, ordea, alderantziz gertatu zitzaigun bertsolariak egin ziguten kritika, gaien zailtasuna zela medio. Hemen ere, bi parte daude; entzulea eta bertsolaria. Gaiak bientzako egokiak izan beharko lukete, baina oreka lortzea ez da gauza erreza".

AZKEN URTEOTAN KALITATEARI DAGOKIONEN HOBEKUNTZA NABARI

Ezarian-ezarian, barearen gisa bada ere aintzina ote goazen edo kalamarroen antzerk



ibelka ote gabiltzan zalantzak ditugu bertsolariaren munduan ezezik bertze onbait arlotan ere, batez ere hemen, gure nafarroa maitean. Nor hoberik honi buruz iritzia emateko, epaimahaian egon den bat baino? "Nik uste garbi dagoela aurrerakuntza abaritu dela batez ere bertsolari batzuenan. Eta beharbada gehiena hobetu direnak ez dira finalera iritxi direnak izan, bertze onbait baizik. Bertsolari batzu nabarmenki hobetu dute bere maila, hobeki neurtzen dute,

saiatzen dira ikasten, lantzen e.a. Nik uste, gutxika-gutxika, Nafarroako bertsolariak hartzen ari direla maila, nahiz eta oraindik konparatu ezin gaitezkeen Gipuzkoarrekin, adibidez. Halere, honela segituz gero, guzi honek fruituak emanen dituelakoan nago, noiz ez badakigu ere. Nire ustetan zailena lortu dugu txapelketaren bitartez, eta hori Nafarroako bertsolariari bultzada bat ematea izan da. Horregatik, berpizte hitza ez litzateke gaizki jarrita egonen".

EPAIMAHAIAKIDE IZATEA; EXPERIENTZIA GOGORRA

Akabilerrako utzi badaugu ere, ezin izango genuen elkarrizketa amaitu epaimahaian egotea zernolako esperientzia izan den galdetu gabe. Aingeruren hitzak aski adierazgarriak dira gai honen inguruan. "Epaimahaian egotea izugarritzko erresponsabilitatea da, eta esperientzia gogorra gainera. Niri betidanik gustatu izan zait bertsolaritza eta mundu hori landu izan dut, baina une labur batetan puntuak eman beharra, gauza pila bat kontutan hartuta nahiko zaila egiten da, ahazten ez badugu gure eskutan dagoela txapela buru batean edo bertzean egotea. Gainera, entzulegoarentzako ez da oso inportantea izanen txapela buru batean edo bertzean egotea, baino bertsolariak ez dute jolasa bezala hartzen. Izugarritzko inportantzia ematen diote txapelari eta denak beretzat nahi dute. Eta hori, gure eskutan dagoela ardura ikusteak, une larriak pasa arazten ditu. Horregatik, nik batzutan sufritu egiten dut epaimahaian".

Hauxe da bada, Aingerurekin izandako solasalditik, interesgarriena idurituta atera dugun zatia. Ziuraski zerbait gehiago ere erran zitekeen, beharbada merezi zuen gauzaren bat betirako galdurik geratu izanen zaigu zintaren zirrikitu ilunean. Gure irakurle zintzoak barkatuko digulakoan gaude epaimahaian egoteak zer suposatzen duen ideia garbia egiteko balio izan ez badio. Eta barka bekigu, baita ere Aingeruk, berak azaldutako ideiak zuzen transkribitzen jakin ez badugu. Amen!



asi ginen.

la bada, ari-leku ohizkoenak (ostatuak) protz bihurtzen joan zaizkio pixkanaka, bertze soinu-kaxek abots kraskatuko dispatuak baino hobeki kantatzen baitute. zona pasiboago bihurtu ere bai. Zerebrago, eta espontaneitate txikiagoko, seguski.

la lehen bakan zena, bakanago.

na den, hasieran erran bezala, azkeneko teotan hobetu egin da panorama. Hori aranbolaz gertatu da, bertze pilota batzuegitzen hasi eta hau jo dutenean: frankisboa eta zentralismoaren kontrako erantzuna; erria eta hizkuntza galtzeko zorian gusteak sorreraziriko "salbazio" mugimendua; a ondorioz gertatu den "geure" agerpenztien gorespena, beraien aldeko lana eta rrrera.

bertsolaritzari dagokionean, Euskal Herri mailan eginiko azkeneko txapelketak izan ara, neurri haundian, mugimenduaren beraren agile, komunikabide guziek eskaini dieteq entzio dela medio, eta bertzalde, zenbarrainoko zaletasuna piztu denaren erakusarri.

teresa berpiztu da, eta bertsolaritzaren storia nahiz teknika ezagutarazi eta ntzen hasi da jendea, eskola-haurrei eta linekoentzako eskoletan. Horrela joan da lapait hazi eta berritzen, baita, maila anko apalagoan, Nafarroan ere.

la nahi ere, trebatzea eskoletan gertatzen eta jende aintzinekoa txapelketa edo otolaturiko saiotan. Sukar berri honen aitzak urri ageri dira ostatu edo bertzelako transzendentziarik gabeko lagunte giroan, lehenagoko esparru natural riek galduz.

ran liteke boom moduko zerbait izan dela keneko urte hauetakoa. Eta orain, hori retzen ari delarik, ematen du, bertze obintzietan behinik behin, ez dela tifiziozko su hutsa izan, eta zainak sendo

xamar bota dituela lurrean. Hau da, bertsozale zahar eta berriz osaturiko multzo haundian bertsolari zahar eta berri mordoxka ari dela gogotik. Horrekin batera, aldi berean, aipatu beharra dugu zenbait eritzi kritiko ere plazaratu dela, bertsolaritza eta bertsolari "berri"en izaera eztabaidatuz.

Nafarroan, Bizkaia eta gehienbat Gipuzkoatik hagitz urruti gaude, eta gurean erabakiko balitz bertsolaritzaren geroa ia guriak egin du kantari ariko liratekeenak ez genituzke gutti izanen. Baina, pentsatzekoa da bertzeetan sorturiko olatua, gaurregun duen sasoiari kontzen badio, gure hondartzetara ere ailegatuko dela.

Hortaz bada, etorkizunaz galdetzen didazue- nean, zer gertatuko zai gelditu beharko dugula erantzunen dizuet. Dagoena ez da segituan itzaliko, bistan da. Baina

hizkuntzarena berarena ere segurtatu ezin bada, nola hasiko gara bertsolariak baietz ehun urteren buruan. Hala eta guztiz idazki honetan agertu nahi izan dudan bezalaxe, zail xamarra zait pentsatzea geroan mantenduko dela lagunarteko broma eta denbora pasako bertso-iharduna, afal ondoan edo ostatuko barraren kontra botatako bertso maiz aldrebesa baina txispaduna eta bat batekoa; hitzekin jostetan ari garela, halako elkarketarekin ustegabeko efektoa, majia hori, sortu dugula ohartzek ematen duen plazerra.... Giroak, behinik behin, ez du horretarako laguntzen, eta beldur naiz pertsonak ere ez ote garen zuhurrago bihurtzen ari, eta ahoa ideki orduko ez ote dugun bizpahiru aldiz erran beharrekoa pentsatzen....

Datorrena datorrela erratea bertzerik ez zait gelditzen, eta bertsolaritza noizpait itzaliko balitz, bertze gisako umore eta jostabidea harrapatu ditugulako izan dedila. Amen.

Mikel Taberna "Kapi".

proposamena onartua izan zen eta hontan ere aurre pauso bat eman dugulakoan gaude.

Irakaskuntzari dagokionez, Nafarroako Gobernuarekin harremanetan jarririk 85ean, hegoaldeko bertze hiru herrialdek zuten bezala, bertsolari liberatu bat lortu genuen ikastola eta eskoletarako. Oraindik ere ikastetxe guztietan bertsolaritzarako plangintza bat ez egon arren, azpimarratzekoa da bi mila haur inguru ari direla bertsolaritza lantzen eta dagoeneko bertso paper lehiaketa pare bat burutu dela.

Bertsolariak eta bertsozaleak bertsolaritza gorputz baten bi hanka osatzen dituztela erran genezake. Bata bertze gabe deus ez da eta hargatik biak zaindu eta bultzatu behar ditugu.

Adanik, batzuk ikastoletara begira jarririk daude, Sarasua edo Eguzkitze nafar bat noiz ikusiko, baina oraindik zuhaitzek denbora eta ongari asko behar dute horrelako fruitu mardul batzuk emateko; gainera fruitu hori ez da gure instanteko helburua. Gazteei begiratzuz bertso saioetan euskaldun berri ugari ikusteaz konforme gera; bertsolari helduek berriz bere maila hobetzen saiatzen badira, berdin izanen ginatke.

Nafarroak ospe haundiko bertsolariak izan ditu historian zehar, baina Xalbadorrek zioen bezala, Gipuzkoan ondu zen bera eta berdin beste batzuk. Bertsolaria entzuleak estutzen du, entzulea da bertso egarri dagoena, eskatzen duena eta bertsolariak hori aseko badu ahaleginak eta bi egin beharko ditu sarritan eta ekite horretan bertsolari gauzatzen da.

Xalton eta Arozamena azkarregi joan ziren hemendik, baina bertsozale denak ez du ahantzirik Manuel Lasarteren gozotasuna eta sakontasuna. Horrelako izen haundiek beti dute inguruan bere itzala eta bertze maila bateko bertsolari franko herrietan badelakoan gaude. Lehen aldiz plazaratzeak beti suposatzen dio bati amets gaiztoren bat, baina harresi hori apurtu behar delakoan

gaude masifikatzearen alde ari garenok.

Nafarroan oraindik ezin dugu bertsolaritza hiritar bihurtu denik erran, ez eta ere aurrerakada izugarri bat izan denik, baina nere eritzi apalean lozorrotik ateratzen hasi gara. Bertsolarien kopurua gehituz doa, hauetatik zenbait guztiz berriak dira eta maila ederra erakutsi dutenak. Bertsolari heldu batzuk bertso munduari berriro lotu zatzaizkio, eta azken lau urte hauetan bertso saioak bikoiztu ez ezik laukoiztu dira eta bidea zabalik dago.

ETORKIZUNARI BEGIRA

Lehiaketa giro eta kutsu horretatik pixka bat urrunduz, garai bateko bertsolaritza bizi eta bitxia ezagutzea komeni zaigu egungo bertso eskola razionalarekin nahasteko.

Proiektu haundiak aipatzen hasi gabe hemen, hiru puntu ikutu nahi nituzke:


a.- Txapelketa. Aurrera begira lanak aldatzen joan beharra dago eta gaien barietatea zaintzen gaurkotasuna eta lekukotasuna kon-tuan izanik.

b.- Irakaskuntza. Materialaren prestakuntza erdi bidean dago, baina hori eskutan izatea bezain beharrezkoa dugu irakaslego bat bertsolaritza emateko prest izatea. Nafarroan hiru urte besterik ez baditugu ere bertze herrialdeetako esperientziak balio liezaiguke.

d.- Bertso Eskolak. Hauek zonaldeka zabal-tzen saiatu beharra dago. Batzutan paperaren inguruan bultzatuko da, bertzeetan afaritxo baten epelean eta mila era desberdin izan daitezke egokiak.

Azkenik, komunikabideen eragina baztertu ezina da bertsolaritza bultzatzeko eta hoiiek ongi erabiltzen jakitea nahitaezkoa da. Ez-baian dagoen gai hau sakontzen ordu batzuk igaro beharko ditugu bide berriak urratzeko beldurrik gabe. Agian ahalegin guztiak ere murriztuz gelditzen dira euskara indartzeko, baina gure aldetik ongi legoke azken urteetako abiadurari jarraituko bagenio.

Lontxo Aburuza.-



ertsolaritzari neurritz gaineko balioa ematen zaio herri honetan; ahozko literaturaren barruan gauza nimíño bat izirik ez da bertsoaritzaz, eta herri honetan ahozko literaturaz idatzi diren buruetan, kasik pisu guzia berak hartzen du. Naturaltasunez hitzegiten duen esatari bakoitzak lokutorerik gabe geratzen ari gara bakoitzak zer esanik ez; ipuin bat idaztean, behar bezala kondatzen, kasik buruak ez daki herri honetan; elkarrizketan burunt bat ahozkotasanak eskatzen duen bakoitzarekin burutzeko kasik ez gara kapaz, baina halere, bertsoaritzak izan behar duela erabazteko gure panazea, gure hitzaren kirol nazionala. Ez ba. Ahozko literaturaren eremua bala da oso, eta ugaria. Ahozko literaturaren zatitxo bat herri literaturak idaztean du, hau da, literatura popular esaten dute, eta ahozko herri literatura honen zatitxo txiki bat baizik ez da izan bertsoaritzaz mundu gizian, eta gaurregun, herri euskal herri exotiko honetan ere, ahozko herri literaturaren zati txiki bat bertsoaritzaz ez da bertsoaritzaz. Fenomeno hori erregulagarria, erakargarria, entretengarria, baina nahi den guzia, baina, ahozko herri literaturaren zati txiki bat. Azken boladan herri honetan gehienik erabili den kontzeptuari buruz, bertsoaritzaz ez da hitzaren kirol nazionala, bertsoaritzaz ez da hitzaren kirol nazionala izatera ere iristen, bertsoaritzaz hitzaren herri kirol ugarietatik bat bertsoaritzaz ez da.

berriro da bertsoaritzaren gradua ene ustez, baina norbaitek behar bada pentsatu izanen du, bertsoaritzaz oinperatzen ari naizela hori bakoitzean, eta alderantziz, literatura idatziaz idaztean, arteetan lehen mailakotzat hartzen, alegia, ni neronek literatura idatziaz idaztean naizelako. Alde batetik, egin dudana erabazteko edo graduapen hori, nik ezezik ez dute edozeinek ere egin lezake, begi buruak baita da. Beste aldetik, niretzako literaturaren izatearen arrazoiak ahozkoan bertsoaritzaz, ahozko literaturan, hau da, literatura idatziaz baino askoz gehiago balio du bertsoaritzaz; baina, gehiago balio ez, hots, literaturaren funtsa ahozkotasanean datzala erabazteko. Inon ez da existitu literatura idatziaz egin duen herri muturik. Halabaina, literatura idatziaz eta ahozkoak zirkulu berberetan osagarri bat ixten dute: Hizkuntza

baten motor eragilea, dinamikotasuna, bizitza, ahozko literatura da, eta literatura idatziaz, bizitasun horren testigutza lana egiten du, jaso egiten du, eta iraun dezan laguntzen, eta aldi berean, jasotzen den testimonio idatziaz dinamismoa eta bizitasuna ematen dio ahozkoari. Hortaz, ez gintuzke nolana interpretatu behar gauzak eta kontzeptuak; baezpare esaten dut hau.

BERTSOLARITZAREN ETORKIZUNA:

Gaurregun bertsoaritzaren bidea gaureraino nontutik dihoan ikusteko (neure gisara bertsoaritzaz ikusteko noski) harako Xenpelarrek idatzitako iparragirri bota zion bertso ezagun hartaz baliatuko naiz. **Iparragirre abilla dela bertsoaritzaz askori diot aditzen / eskola ona eta musika idatziaz orietekin serbitzen...** Gaurko bertsoaritzaz berriek ere badute eskola eta musika aski, baina, hori ez da nahikoa bapateko bertsoaritzaz izateko, eta ez ahaztu, hemen bapateko bertsoaritzaz dago eztabaidan. Lehen uste izaten zen bertsoaritzaz berezko bertsoaritzaz jainkotiar batek egiten zuela; eta hori ez da egia, zeren lehen ere nola edo hala ikasi egiten bait zen bertsoaritzaz. Baina orain bertsoaritzaz badirudi alderantziz gertatzen ari dela, alegia, edozein izan daitekeela bertsoaritzaz, eskola ona eta musika izanez gero. Oraingo bertsoaritzaz bertso doinu ugari izanen ditu buruan eta errimatzen duten mila hitzen zerrenda luzea ere bai, baina, bapatean bertsoaritzaz osatzen hasten denean ez da kapaz bertsoaritzaz minimo batekin bertsoaritzaz burutzeko; mekanikoki osatzen du bertsoaritzaz. Honi buruz nagokiola, duela dozenaren bat urte Ibon Sarasolak bere **Poemagintza** liburuan aipatzen duen pasarte bat datorkit burura: **ni ez naiz poeta, ni poemagile naiz. Ez, ez naiz poemagile ere, ni poema konstruktore naiz.** Gaur beste hainbeste esanen nuke eskola berriko bertsoaritzaz, bertsoaritzaz baino areago, bertso konstruktore direla. Hitz bakoitzak zenbat silaba dituen jakinen dute, eta gainerako neurri, errima eta mekanismo guztiak ere jakinen dituzte, baina, tresna guzti horiek nola korapilatu, eta lirismorik edo graziaz nola lortu ez dakite. Hitzaren bertsoaritzaz artista izatearen sena falta zaie.

Bertsoaritzaz bapatekotasanaz ari garela ahaztu gabe, herritar batek lehengo batean esaten zidan imajina ekarri nahi nuke hona:




ta azkenik, hasieran oinarritzat hartu
ugun Xenpelarren bertsoa bukatzeko hauxe
eratzan zaigu: **Debalde festa preparatzen**
bet/ gogua dedan orduan. Egia. Gogorik gabe,
arrengo motibazio horrenik gabe kantatzen
a gaurregun lautatik hirutan. Eta
motibazioa probokatu baliteke ere goienez
diruna bertso kantatzeko muga jartzen bazaio
bertsolari ofizialari, motibazioa sortzen edo
ditzen hasi orduko bertan behera geratzen
a. Horregatik, **motibaziorik gabe egiten den**
komedia, parodia, bihurtu da gaurko
bertsolaritza ofiziala. Plazarik plaza,
jaialdiz jaialdi, eta txapelketaz txapelketa,
abiltzen dozenaren bat komedianta dira
gaurko bertsolaritza, eta gogoa duen orduan
kantatzen duen herrietako bertsolari
fizionatua (baina, askotan gaurko bertso
onstruktore ofiziala eta jornalekoa baina
obeagoa eta grazi haundiagoz kantatzen
uena) baztertua dago, era bat zokoratua.
fizialtasunak estali egin du bertsolari-
zaren benetako harrobi deneko esparru hori,
eren Jon Sarasuak ETBko Ezbaian esaten
uen bezala, bertsolaria ez baita pizarrean
ertsoa konstruitzen ikasiaz bakarrik
egiten, baizik eta herrietako talde giroan,
dialektikan, eta ihardunean. Dena ofizial-
asunaren, eta diruaren sareetara bildu da;
nstituzionalizatu egin da bertsolaritza;
xapelketa-jaialditan etabar parte hartzen
z duen bertsolaria ignoratu egiten da
gaurregun. Komunikabideetan, kasetetan eta
buruetan jasotzen diren bertsoak, bertso
fizialak besterik ez dira.

estalde modernismo faltsu baten izenean
literatura idatzia herri girotik giro
(banora bezala) bertsolaritza ere presaka,
kar eta trakets pasa da menditik mundura,
erreak garbitik itsaso zikinera. Uste genuen
uskara batuaren botikak sendatuko zituela
gure gaitz guziak derrepente, baina, orain
partu gara oker genbiltzala, orain hasi
ara herrietako lokuzioak biltzen, euskalkiei
har duten garrantzia ematen, eta nolabait
sateko, baserritik hirira egin genuen salto
karregia zuzentzeko edo konpontzeko,
zera baserrira itzuli eta giro urbano
tetarako bideak polikixego eta tajuz
ratzen. Bertsolaritza ere ez da libratzen
katu horretatik. (Eta gainera, bertsola-

ritzaren gaitza aurreragokoa da, lehen uste
izaten bait zen, bertsolari izatekotan
Gipuzkoar izan behar zela derrigorrez).
Batuaren eta hizkuntza idatziaren eredu
horretara makurtzen joan da bertsolaritza,
ahozko ereduaz ardura haundiegirik izan
gabe. Badut aditzea **batuan** osatutako bertsoa
gehiago baloratu izan dela epaimahaiaren
batetan, euskalki jakin batetan osatutakoa
baino. Hori astakeria izugarria iruditzen
zait. Batuaren fenomeno baloratu beharrean
bertsolari bakoitzak bere euskalkitik egiten
dituen aportazioak (lokuzioak, hizkuntz
jokoak, fonetika arauak) primatu beharko
lirateke. Bertsolaritzak euskal kulturari
egin liezaiokeen aportaziorik haundiena alde
horretatik ikusten dut nik. Gaur gaurkoz,
oraindik behinpein, bertsolaritzaren
modernotasuna eta hiritartasuna frogatzen
eta aldarrikatzen ezinezko ahaleginetan
ibiltzeak ez garamatza inora. Askoz hobe
litzateke (ene ustez behintzat) oraindik
geratzen zaion herri giro natural horretan
eman lezakeena jasotzen eta aprobetxatzen
saiatzea. Herri honetan bertsolaritzarekin
bezalaxe beste fenomeno askorekin zera
gertatzen da, ez zaila gauzei ez bizitza
natural bat izan dezaten utzi nahi. Hemen aipatzen
hasiko ez naizen mila arrazoirengatik
euskaldun senditzen naiz ni, baina, ez
harritu gero eta euskaldun guttiago izatea
gure artean, eta ez harritu, gero eta
bertsozale guttiago izatea ere.

Bukatzeko beraz: **Oraindik erreka ttikiko**
amurrain estimatua eta baligarria izan
zitekeen bertsolaritza, bere habitat natu-
raletik atera eta ur haundi kutsatuetara
ekarria izan da modernotasunaren, bizitzaren
eta etorkizunaren izenean, eta hortxe dabilia
gaitzak jotako arraina bezala, ez bizitzen
eta hiltzen utzi nahi ez diotela, noraezako
agonia tristean; ez, agonia baino areago
tortura esanen nuke, zeren gizakiak asmatu
zuen torturarik latzena hori baita, nola
bizitzen ala hiltzen ez uztearena; eta
euskaldunok, nonbait, ongi ikasia dugu
tortura klase hori; beharbada, geu torturatu
gaitzuztenei ikasia, baina, dena den oso ongi
ikasiaz dugu geure buruari ere tortura klase
hori aplikatzen. Requiescat in pace, amen.

Patxi PERURENA.



Saioa, Goizuetako zinema aretoan ospatu zen, jende aldetik topetaraino bete zelarik.

Partaideak, zozketaren arabera:

- 1- Fagoaga
- 2- Ifurrategi
- 3- Laka
- 4- Elizagoien
- 5- Aristorena
- 6- Xalbador Madariaga
- 7- Bautista Perurena

Gai jartzailea: Iñaki Zabaleta

Iñaki Zabaleta: Bertsolariak ia lasai-lasai, ongi etorria eman eta oraintxe, ia ekingo diogu lanari. Lehenbizi, zortziko haundian arituko dira. Beraz, lehena eta bigarrena etor daitezela; Fagoaga eta Ifurrategi zortziko haundian ofiziotan aritzeko.

Gaia: Fagoaga aita da, Ifurrategi alaba. Alabak beti erraten dio etxetik badoala. Ifurrategi hasi eta hiruna bertso zortziko haundian.

Ifurrategi

Familiaren senean pasa
behar dira hainbat tragu,
zeren alabak joatear dela
orain ozenki dihardu.
Ta bere baitan arrazoi frango
nere alaba horrek badu
aita on onek ez al dizu eman
behar zenduan hainbat anparu.

Ifurrategi

Zure hitzetan nabaria dut
gazteen haize eroa,
nonbait baduzu hemendik kanpo
zuk zerbaiten esperoa.
Ta familiar ez al dezu ikus
askoz hobe geroa,
pentsatu al dezu zuk non bilatu
hemen zenduan beroa.

Ifurrategi

Aita barkatu baina agian
okerra egin dizut bai,
guk e(re) askoan guen za(ha)rrekin
izan gera alai.
Ta ez nuen pentsa sekula ere
ni izango nintzanik gai,
baina mesedez ulertu (e)zazu
ez nizun minik eman nahi.

Fagoaga

Aita za(ha)rra ere saiatua da
gaurko munduan hainbeste,
ta orain alaba dihoala
hori neretzako kalte.
Nere ondoan bizi izan zera
nik ez dakit zenbat urte,
hortaz aitortzen hasia zera
aita ez duzula maite.

Fagoaga

Alaba maite pentsatu dezu
begira zure geruan,
baina ez pentsa pozik joazkela
hemendikan haien beruan;
horrela pentsa baldin bazenun
zuretzako ez zenduan,
edo gaizki bizi al zinaden
zu zure aitaren ondoan.

Fagoaga

Aita egon da alaba maite
hemen era onenean,
bainan ez zuen inoiz pentsatu
ikusterik azkenean.
Negarra ere egin liteke
zu hor zihoazenean,
hau al degu ba espero genduna
gure zahartze gerokoan.

Fagoaga

Neretzat arraultza ta hor arkume ona, zeinek maiteko luke holako gizona. Lana egin behar degu ta ho(r)i da onena, ia jan dezagula dana erdibana.

Laka

Igandetan ez daukat gogorik laneko, saldu arraultzeren bat bera erretzeko. Perurena laguna haundi det halako bildoxki bigunetik nik diot erreko.

Perurena

Lotsagabe e(g)in ezak hi hemen alkarri, jatetxe on batian danetatik jarri. Nik ere hau esan behar diotet igarri, zuek arraultzak janda ne(r)i arkumea ekarri.

Fagoaga

Sartu da Batista ta jarri apartean, ta Laka hau zabilen zerbaiten artean. Nik arraultzak jan behar ditut bitartean, hal(a)ko diferentzia al da laguneren artean.

Laka

Bazkariari buruz dugula berua, igandetan jiteko hauxe da erua. Adixkideabatu nik baitut helburua, gainera Perurenak badauka dirua.

Perurena

Biek kontra zirala oraintxen det etsi, leku ederrean naiz; orain egin behar det eten edo hautsi, danetikan balitz hok aretxia utzi.

Ifaki Zabaleta: Orain beste bikotearekin segituz, bia eta bosta: Ifurrategi eta Aristorena. Jendearentako oporraldiak eta bidaiak eratzen dituzten agentzia batean lanean ari da Ifurrategi. Munduko bazter guztietara antolatzen omen dituzte bidaiak, baina gaur Aristorena etorri da ilargira joan nahi duela esanez. Aristorena hasi eta hiruna bertso zortziko txikian.

Aristorena

Bidai bat egiteko daukat nik asmoa, antolatzen duzula hartu det susmoa. Eta gure mundua ez denez sana, zuek denak utzita ilargira noa (bis).

Ifurrategi

Sano asko etorri da hona bere kasa, eta galdetuzten dut ote da kapaza. Ta gainera esan du dena lasa-lasa, hortarako bisita behar duzu Nasa (bis).

Aristorena

Zuk esan behar ote didazu ba nora, hau al da gizon batek gaur daukan ganora. Preparatu dezazun hartzazu denbora, satellite txiki bat neretzat nahiko da (bis).

Ifurrategi

Ideia dispartatu asko daduzkazu, bainan zuk Pablo Joxe hauxe entzun (e)zazu. Ilargiraino lasai joango zera zu, autobusez joatia asmatzen baduzu (bis).

Ifurrategi

Zure segurtasunez hainbeste zarata, planteatuko dizut ideia aparta. Ikasi zientifiko edo astronauta, orduan dohainikan joango zerata (bis).

Aristorena

Hori antolatzea kostako da hamaika, ez zait neri gustatzen mundu politika. Eta igual le(he)rtuko da gerra atomika, handik ikusiko det nik zirko polita (bis).



Ifiaki Zabaleta: Bukatu ditugu zortziko haundiak eta txikiak eta sartuko gara proba berri batetan. Nik emango diet bertsolariei banan-banan lehen puntua eta haiek bertsoa osatu behar dute ta ondoren lau oinak eman eta haiek bertsoa osatu. Beraz, lehendabizikotik hasiko gara.

Fagoaga

1)

*Jendea lana bila
hor dabil jotake...*

hori ere geroan
asmoa litzake;
ni ere asmo hortan
etorri naitzake,
gero egiteko asmoz
etorri litaizke.

2)

Oinak: Eraso, jaso, akaso, kaso.

Gusto on batekin gaur
nik diot eraso,
baina e(g)in beharrikan
hor laguna kaso.
Goratu leike edo
baja ere akaso,
nere burua gaurkoz
nik ezin det jaso.

Ifurrategi

1)

*Herria maitatzea
noiztik da pekatu...*

denbora ezin dugu
horretan luzatu.
Hamaika ekintza ere gaur
daitezke hautatu,
herria ez maitatzea
behar da kondenatu.

2)

Oinak: Jaio, zaio, saio, garraio.

Gure onurarako
hor mila garraio,
kutsadura zikin bat
ondorez da jaio.
Ta hori probatzeko
hor ehun mila saio,
guzti hau gizonaren
errua(r)i zor zaio.

Laka

1)

*Hirian arrotz eta
mendietan trebe...*

hirira joan ta egin
naiz mendien jabe.
Orain ere ibiltzea
zeraita hobe,
gaur e(re) Intza menditik
apartean gaude.

2)

Oinak: Izana, bana, jana, afana.

Ez nago goseak ta
ederki dut jana,
andrearekin betan
gaur txuleta bana.
Saio on bat e(g)iteko
banuen afana,
bainan zoin zaila dago(e)n
ahal ez izana.

Elizagoien

1)

*Haundiak ere ez du
beti irabazten...*

alferrikan dabilte
guri enganatzen.
Hoi en armamentuak
ez naute bildurtzen,
irabazia arte
nik det borrokatzen.

2)

Oinak: Hil, dabil, mutil, umil.

Gauza hau pasa eta
ezin egon umil,
eta oraindikan ere
gezurra hor dabil.
Dei egiten dizuet
neska ta berdin mutil,
Lopetegi Herreran
ez zala ez bera hil.

Iñaki Zabaleta: Azkeneko partean sartu gara eta orain heldu zaigu gartzelako gaia. Beraz, bat ezik bertzeak kanpora irtengo dira eta puntu bukaera eta gai berdina jarriko diegu guziet.

1) **Amaiera:**

Guri horretzek ematen digu
bihotz barrenean poza.

2) **Gaia:** Itxura zarpaila omen duzula eta ez zaituzte elizan sartzen utzi.

Perurena

1)

A(ha)l baldin banezake
bertso eder hau osa,
badakizute ez dala
honore dana rosa.
Ikusiagatikan
beti ez gera goza,
badakit emango (d)iotela
hemen askori poza.

2)

Beharko ditugu gaur
falta guzi(a)k esan,
jaiotzetik holaxen
etorri bait nitzan.
Naizta sasoiko egon
kojo gelditu nitzan,
horregatik nonbait ez naute
hartu nahi elizan.

Alde batetik kojua
bestetikan za(ha)rra,
horregatikan inork
ez du e(g)ingo parra.
Gure Jaun zerukuak
hau ne(r)i eman beharra,
jauna ez hasi elizan
sartzea dala txarra.

Kalte batzuegatik
ez zaituzte larritu,
hutssegite hoiek
nahi ditut berritu.
Nola ez daitean nik
mundurik korritu,
elizan sartzia baino
lan gehigo baditu.

Fagoaga

1)

Nahiz eta gu hemen nerbioekin
giroa ez degu hotza,
ikusten dezu larritasunez
ta bertsoan nabil motza.
Baina jendea hola ikustea
alaitutzen du bihotza,
guri horretzek ematen digu
bihotz barrenean poza.

2)

Barkatu bainan ez naute inoiz
itxuraz bete horixe,
baina nik uste be(re) lagun asko
ta esango det horixe.
Ni eleizera joango na(u)zu
le(he)ngoan ta berrize,
jainkoak hala zuentzat bezala
berdin baita neretzate.

Itxura txarrak hainbeste kalte
egiten du(e)n zeinek jakin,
nik eleizera sartu nahi det (t)a
hauxen det pena gaur ezin.
Nik zuek bezala maitatutzen det
ta orain nahi nuke jakin,
ez al bada merezi orain
zuek merezi bezala berdin.

Jainkoak hoal egin zidan ta
neretzat ez da kalteri,
itxurarekin egin liteke
edo ez al da besteri.
Edo Jainkoak maite zaituzte
hemen daudenak bakarri,
hor itsusiak edo politak
maite bait baitu deneri.

Ifurrategi

1)

Ikus zazue hauxe zeinen den
hemen une aproposa,
gaia jarrita edo puntua
eta guk bertsoa osa.
Bai bertsolari bai entzulea(r)i
bihotzean sortu poza
guri horretxek ematen digu
bihotz barrenean poza.

2)

Itxura denez nik atera dut
oso itxura eskasa,
ta atarian erretoreak
hitz gogorrez dit abisa.
Itxura denez ni hurbildu naiz
pekatariaren gisa,
aberatsentzat degun etxea
noiztik izan da eliza.

Itxura denez eliza dugu
aberatsen anparu,
ta izan ere kanpo aldetik
horren itxurarik badu.
Za(ha)rra modura etorri naiz ta
horra mila eskandalu,
zer esango zu(e)n gaur Jesukristok
guzti hau ikusiko balu.

Aberats trazak hartu dituzte
ta pobreak zirrika,
defentsarik ez dut ta egin didate
gaur aurpegira harrika.
Onartu behar dituzte hemen
jende xehearen kritika,
horrelakorik aurrerantzean
ez dadila errepika.

Laka

1)

Oraindik ez da ez amaitu
Euskalerrriaren hitza,
lekuko aspaldidanik hor da
oi gure bertsolaritza.
Herririk herri anai artean
ahal guzietz gabiltza,
guri horretxek emaiten digu
bihotz barrenean poza.

2)

Nere izatez xumea bait naiz
ta gainera ez aberatsa,
astean behin sakratuaren
biltokitik nahi pasa.
Neri gustatzen zeraut apezak
han jalgitzen duen hitza,
zeren uste dut jende xumena
ere dagola eliza.

Arras pobreaki dirurik gabe
ahal bezala nabila
ezpanturik ez, atera naiz
nahi dut izan humila.
Baian hargatik nere bihotza
sentikor da ta ez hila,
nola ulertu nere bekatu
nahi nuen gizon bipila.

Debekatzaile dagoen horri
zor zaio debekatzea,
zeren ez daki hurbildik ere
horrek zer den sofritzea.
Horrek baino hobekiago dut
egin otoiz kantatzea,
eta gainera gure elizan
dago guzian etxea.

Elizagoien

1)

Bertsolaritza Naparroan le(he)n
genduen nahiko arrotza,
eta orain indartzen ari da
hontan behar degu goza.
Bertsolaritza baita euskara
bizian daukan bihotza,
guri horretxek ematen digu
bihotz barrenean poza.

2)

Elizara abiatu naiz
eta hau gai zorrotza,
atetikan ez uzte horrek
ez dit poztu niri bihotza.
Bainan halare ez dit ematen
gauza horrek niri lotsa;
gizon jatorra nahiz zarpail izan
laguntzeko aproposa,
nahiz elizara niri ez utzi
zeruan daukat bihotza.

Eliz hontara abiatua
nintzan poliki-poliki,
baina baten bat ate ondoan
gorrotoaren eduki.
Eta sartzera ez nau ni utzi
zarpail kontua aitzaki.
Bainan hala nik horrengatik
ez aniz gelditzen ez gaizki,
pertsone fina naizela zi
gure jainkoak badaki.

Eliz hortara parti nintzanin
hor erligio osuan,
eta atean sarreran batek
hor hartua nau lazuan.
Eta zarpail kontu horrekin
hortxen utzi nau kanpuan,
gaizki egina daut horrek bainan
barkatzen diot bihotz osuan,
eta ia elkarrekin gu
elkartzen garen zeruan.

Aristorena

1)

Kanporaketa zela jakinik
guk zazpikotea osa,
genduen eta topatu degu
guztiz giro aproposa.
Guk zuentzako kantatu eta
zuek gaur gurekin goza,
guri horrexek ematen digu
bihotz barrenean poza.

2)

Nire Elizara abiatu naiz
guraso za(ha)rren usantzan,
Jainkoarengan eta fedean
jartzen dudan esperantzan.
Itxura txarrik ez daukat ustez
ez naiz hurbildu balantzan,
ta apez jaunak nere itxura
zertan jarri du zalantzan,
eliza uzten ari dira ta
hauze bakarrik falta zan.

Mindua nago gertatuakin
eta apeza adizu,
fededun bati hau egitea
ematen dio mila su.
Kristau jatorra naizela le(he)ndik
ederki asko dakizu,
handi-mandien hipokresia
errepaturten badezu
erabereko kristau zintzoak
ez gera izango ni ta zu.

Itxura txarra daukadalako
zergaitik orain berezi,
jakizu kristok ez zu(e)la maite
horrenbeste hipokresi.
Hura txiroen artean beti
izan zen hazi ta bizi,
horrelakorik gaur bazterretan
ez bedi asko ikusi,
zuk zeuk ematen dituzun hoiek
hartzea dezu merezi.

Madariaga

1)

Esan bezala izan nahi nuke
nik e(re) bertsua hau osa,
eta gainera gehina ematen dit
neroneri hontan poza.
Ordaindutzeko ez du merezi
pagatzea hainbeste sosa,
nik nahi nukena nahi nuke beti
zeru erdian goza.

2)

Neure saloa orain nijua
denen aurrean aitortza,
elizera ni ez naute utzi
gorroto al da inontza.
Baina nik berdin garbi nahi nuen
izan baita eri antza
(ar)ropak zikinak dauzkiet baino
garbi dabilkat bihotza.

Batzuek ez naute utzi
ni elizera joati,
behinere ez det pentsa izandu
hortan pa(ra)tzia trajia.
Eta gertatutzen zait niri gaur
gizon ona izatia,
gure Jainkoak hortatik nitaz
piska bat erru zaitia.

Gizon fin batek beti behar du
iduki garbi bihotza,
ez didate hor niri elizera
utzi egitera aitortza.
Eta Jainkoa eskatzen dizut
eman zaidazu laguntza,
arropa zikinak zer pekatu hor
egin leitake inontza.

Iñaki Zabaleta: Epaileak hartu dute erabakia eta has gaitzen lehenbizitik. Gartzelako gaian bertso hoberenarentzako bazegoen saria eta hau Aristorenari emanen dio Koro Etxeberria zinegotziak. Ondoren gaurko saioaren emaitzak:

- 1) *Aristorena* 554,8 puntu.
- 2) *Iñurrategi* 484,8 puntu.
- 3) *Laka* 482,5 puntu.
- 4) *Madariaga* 477,6 puntu.

Manolo Arozena:

"AZKENEKO HANAR URTEOTAN NAFARROAKO BERTSOLARITZA ASKO HOBETU DA, BAINA DUELA 30 URTE BOTATZEN ZITUZTEN BERTSOAK ENTZUTEN BADITUGU, HOBEAK ZIREN"

1.988ko Txapelketak eman duen sorpresarik haundiena, Arozenarena izan da, noski. Sorpresa pozgarria, dudarik gabe. Lehen aldia zen, berak erran digunez plazaratzen zela eta ezin hobeki atera. Bigarren saria eskuratu alajaina! Atsegingarria da, Nafar bertsolaritzaren baratzak fruitu berriak ematen dituela ikustea, eta 20 urte ez baditu ere, etorkizun zabala dauka aintzinetik bere bertsotarako ahalmenak landu eta bertsolaritzaren mundutxoan norbait izatera iristeko.

Manolo Arozena Goizuetako "Sarrane" baserrian jaio zen duela 38 urte. Hamabost urtetan atera behar izan zuen lanera Añorgara, eta handik Motrikora, emazteaz ere bertakoa duelarik. duela 14 urte etorri zen Lesakara, egun bertan bizi da, ogibidez garraiolaria delarik. Bi seme eta alaba baten aita da.

Arozenari bertsotarako zaletasuna umetatik sortu zitzaion, fameliarengandik, izan ere, berak aitortzen zigun bezala, bere etxean izan da bertsotarako tradizioa: "Umetatik izan diat bertsotarako afizioa. Bertsotan gaztetatik aritu izan nauk lagun artean, eta batipat etxean. Nire familian amona ere bertsolaria huen, Aita ere bai eta anaia ere aritzen duk. Plazan ariturik ez duk inor, etxean arituak dituk gehienbat. Gu etxean elkartzen garenean, emakume guztiak nazkatuta bukatzen ditek".

Betiko dilema zaharra, bertsolaria sortu ala egiten den galdetu diogunean, hona zer iritzi eman digun Manolok: "Nire ustez giroak asko egiten dik. Bertsolariak sortu egin beharko dik, baina zer girotan bizi den, zerikusi haundia dik. Egunero bertsoa aditzen biziz gero, horrek asko egiten dik. Guk alde horretatik Goizuetan izan dizkiagu bertsolariak. Duela 30 urte bahituen nahiko onak: Xalto, Arozamena eta Madariagarekin onenatarikoa izana. Gero Perurena, Goizuetan



Perurena bat, Olaso, aurreneko bi urtetan txapelketetan atera dena."

BERTSOLARI TXAPELKETAK TXARRAK IZAN DAITEZKE BERTSOLARIENTZAKO, BAINA OSO BEHARREZKOAK DIRA.

Arozenak erran digunez, aurtan aurkeztu bada



ere lehen aldiz, lehendik bazuen Nafarroako Txapelketetan parte hartzeko gogoa, duela hamar urte Lesakan egiten ziren Txapelketa haiez geroztik. Bainan beti beldurtu egin da, urte batetik bertzerako utziz, aurten izena eman duen arte.

Eta Txapelketaz ari garenez, betiko eztabaida zaharra planteiatu diogu Manolori; Txapelketak bai ala ez: "Txapelketak txarrak izan daitezke bertsolarientzako, asko estutzen duelako, baina oso beharrezkoak dituk. Hik jar ezak saio bat edozein herritan, lau, bortz edo sei bertsolarirekin. Zenbat lekutan irakurtzen duk izan dela saio hori? Inon ez! Txapelketak duen gauza ona, prentsaren gain duen eragina duk, bertsoaren kaleratzea. Jendea enteratzen duk bertso saio bat izan dela, puntuazioak eman dituztela, zenbat jende izan den, bertsolari berriak ezagutarazten dizkik etab.... adibide bezala hor zeukagu Jon Sarasuaren kasua. Txapelketan egin zuen papera ez bazuen egin, nork ezagutuko genioke? Jakina, Txapelketak ere batzumentzat onak izanen ditut eta bertzeentzat ez. Horregatik izango dizkik beti aldekoak eta kontrakoak".

Egungo Nafarroako bertsolaritzaren osasunari buruz ere galdegin nahi izan diogu Manolori: "Nire ustea duk azkeneko 30 urtetan ez dela hobetu. Duela 30 urte Nafarroan ziren bertsolariak gaurkoak baino hobeak hituen zihuraski. Jakina azkeneko 20 urtetan hobetu duk, eta azkeneko 10etan ere bai. Baina duela 30 urte botatzen ziren bertsoak aditzen baditugu, Warbarte, Arozamena etabarrek, bertso hobeak botatzen zizkiaten. Gero, deusezetan gelditu huen duela 10 urte arte edo. Orduan, muga bezala hamar urte jartzen badugu, asko hobetu duk, baino 30 urte jartzen badugu ez. Moski, gaur bertsolari gehiago ere badituk, plazan dabiltzanak benipein. Orduan ere bertsolariak izango hituen, nahiz eta plazarik plaza ibiltzen zirenak gaur adina izan ez".

Guretzako gauza nabarmena da, Nafarroa mailan, bertsotarako ohitura eza, lagu giroan bildu eta bertsotan gozatzeko joera hori, zihuraski lehen bazena eta egun inondik ikusten ez dena. Horretan ados agertu da gurekin Arozena: "Egia duk ez dagoela joerarik

gure herrietan bertsotan aritzeko taberneta etab. elkarteetan apur bat ez bada. Goizuetan ere gauza beretsua gertatzen duk, agian e duk hemen bezain gauza arraroa jende bertsotan entzutea, bainan han ere ez du gehiegi entzuten".


Nafarroari begira, et giro aldetik nahik etorkizuna iluna sumatzen badu ere bertsolaritza orohar ez du erren ikusten. Bertsolaritza sekula baino hobekiago zego inoiz baino bertsolari gehiago ageri duk. Adibide gisa, joan den igandean Urrufian, 3 bertsolari 25 urtetik beherakoak kantat ziaten. Sekula baino bertsolari gehiag zegok eta saioak ere hala egiten dituk. Guri inguru hau duk giroa egon arren, saiori egiten ez den tokia. Hemen, Lesakan, ohitur zaharra mantentzen duk. Urtean behin saio bat egin jaletan eta kupoa betea. Nik ust diat itxurazko saioak antolatuz gero, jende joanen litzatekeela eta hori nolabai konpondu beharra zegok. Jakina, bertsoar eman ez bere lekua eta giroa".

BERTSOTAN ARITZEA, GAZTETAN HASTE, LOTS GALTZEA; BERTSOLARI GAZTE BATENTZAK AHOLKUA.

Galdegin nahi izan diogu Manolori ia ze aholkua emanen liokeen gaurko gazte bat bertsolaritza munduan murgiltzeko, eta ber erantzuna ezin adierazgarriagoa izan da: "Bertsotan aritzea, gaztetan haste, lots galtzea, ni orain galtzen hasi naizen lots duela hogei ta gehiago urte galdu beha nuena, gaztetan galtzea. Hori gaurko gaztea baditek nahiko, berezkoa dutenak haste dituk gaur aisa bertsotan. Hori ikusten dia nik garbi Goizuetan, festatara jaten ditut Sarasua, Oiartzabal etab. eta hantx pasatzen dizkitek orduak bertsotan lasa ederrean. Moski, lotsa galdu eta behar du gainera lehen aipatutako giroa bertsoar gustoko dituen entzulegoa".

Berriro ere Nafarroako bertsolaritza murgildurik, galdetu diogu ia abiatu ote dena, hots, gaurko gazteak bertsotan hasiko ot diren, ia hor etorkizunik ikuster duen: "Hemengo problema bertso girorik ez dagoela duk. Ikastolan ikasten aritzen dituk. Ene alabak adibidez, bertsoak idatzi oso ongi egiten dizkik eta gehiago ere izango





dituk, baina problema duk gero jarraipenik ez dagoela. Urtean bi aldiz etortzen dituk Mendizabal eta Telleria, eta Lontxo ere hor zatebilek, baina kalera irten eta ez ditek aurkitzen ezer. Nafarroako bertsolaritzari bizia emanen ziokek bertsolari gazte bat aterako balitz, 18 edo 20 urtekoren bat, nahiz eta bi edo bortz urtetik izan. Zoritzarrez, ordea, oraindik hori ez duk gertatzen".

AINZINA BEGIRA, LANERAKO GOGOTSU.

Aurtengo Txapelketa, zalantzarik gabe, aberatsgarria izan da Arozenarentzako. Alde batetik balio izan dio lotsa galtzeko eta bide batez bertsotarako duen gaitasuna frogatzeko. Halere, ezin uka froga gogorra

izan ez denik aurtengoa berarentzako, aitortzen zigunez, Ehialarren trantze larria pasatu bait zuen gartzelako gaia kantatzea tokatu zitzaionean. Orain itxaropentsu ikusten du etorkizu-na: "Txapelketaz geroztik bizpahiru lekutatik dei egin zidatek eta ezetik ez diet eman eta aurrera ere dei egiten didaten tokietara azaltzea pentsatzen diat. Txapelketara ere aurkeztu egingen gaituk eta ikusiko diagu zer gertatzen den...".

Beraz, badakizue! Hor, erdi gorderik zaudeten bertsolariak bazarete, galdu lotsa eta eman izena datorren txapelketarako. Manolo bezala bigarren postua lortzea erreza izanen ez bada ere, jendeen aintzinean ezagutzera emateko balioko dizue bederen.



Halere, jende aintzinean egin beharreko lehen saio horrek, indezisio edo beldur pixkat ematen duela aitortzen digu Kapik, kotxe berrietan bezala "rodaje" a egin behar dela eta txapelketa hasi aintzinetik..... "bai, erdiurdukoz behin edo bertze ateriak gintuken jende aintzinean, saio sinboliko xamarretan gurean Iruñean, lotsa kentzeko batez ere, eta gero, gero jendearen aintzinean aritzeko, prestaketa ona izan zen. Beno eta gero, ari, ari lehenbiziko aldiz txapelketan izan zen, orain dela lau urte, bai 1984ean, Etxarrin gaur bain zuzen ere" diosku Kapik.

SAIO ARITZEN NAIZ TXAPELKETAN, BERTSO SAIO NORMAL BATEAN BAINO.

Izan ere lau urte hauetan, bi aldiz ere ailegatu da finalean aritzera, iazko txapelketan eta aintzinekoan ere. Eta txapelketetaz ari garenez, Kapik berauetaz duen erantzua jakin nahi izan digu, baliogarritasuna, giroa, e.a. "Bistan da giroa biltzen duela- dio Mikel Tabernak-. Ni halere ez naiz hagitz txapelketa zalea. Ene eritzi pertsonala da bainan, uste dut gehiegizkoa dela urtero egitea. Pertsona berriak ezagutarazteko balio duela uste dut, urtero ateratzen baita bakarren bat, aurtun Arorena batera den bezala. Aurtengoa adibidez ez aintzen egitearen aldekoa printzipioz, bainan..... Ez zait gustatzen txapelketa, bertsolaritzari begira e! kontraesana dago, erran nahi dut, ni bezalako bertsolariek gaur saio aritzen gaituk txapelketa batean saio normal batean baino, zeren, hagitz ariketa zehatzak dituk, bidea ematen zigutek. Zailago da, hortarako esperientzia behar baita, joan herri batera eta hasi gai libretan eta elkarri zirikatuz handik eta hemendik eta..."

Komentatzen digu honetan, esperientzia eta ofizio hori lortzeko, ezinbestekoa dela urtean zehar egiten diren bertso saioen kopurua ere dexentea izatea, "bai, halaxe da. Bik urtean zehar 8-10 saio egin nitzake".

Solasaldiaren une honek, gaur egun, orain, bertsolaritzaren errealitatea Nafarroan zertan dagoenaren eztabaidan murgiltzera eramaten gaitu; on dela ikastoletan eta egiten ari den lana eta nolabait jabetuz, agian gaur bertsolaritzaren sustengorako

hain garbi ikusten ez den sustrato sozial horren ahultasunaz, suposatzen den kate horretan etendura bat izan dela, eta etorkizunean agian, birregiten eta sendotzen joan daitekela "ez zekiat, nik etxean galdetu izan diat ea nor zen hemen (Beran) bertsotan aritzen zena eta bat aipatu zidateken auzoan, toberak jotzen zirenean ibiltzen omen zen. Falta zaizkigu holako erreferentziak, hutsatik ari gaitu bersortzen. Ongi iduritzen zaidak ikastoletan eta bertsolaritza ezagutaraztea eta ea gaztetxo hoiak zaletzen diren joku honekin, zeren nerretzat, joku bat baita eta hagitz joku polita. Gainera nik uste dut gizartea aintzinerara doaien neurrian, hizkuntza hotzagoa eta praktikoagoa bihurtzen dela, dibertsio bide ere izan daitekela ahantziz, gizarte hotzago eta mekanikoago batera goazela iduritzen zait".

Hizkuntzak bizirik dirauen bitartean bertsolaritzak ere bizirik iraunen duela erran ohi da maiztan, eta Kapik dioskunez, hizkuntzaren bitartez egiten den joku horrek, nahitaez, bat baino gehiagoren partaidetza eskatzen du gainera. Hau da, "Literatura bakarka egin daitekeela, bertsotan aritzeko ordea guttienez laguna edo dozena erdi bat hobe, behar da, eta giro egokia".

TXAPELKETAN, BERTSOLARIA BERTZE SHOWMAN BAT BIHURTZEN DA.

Bertsolari on bat izatera ailegatzeko zer behar den galdetzen diogunean zera adierazten digu Mikelek "Beno, bertsoa nik uste denak egiten dugula ikasten dugun zerbaiten arabera. Ikasketa hori izaten ahal da konstziente ala inkonstzienteagoa eta gero hor jokatzeko du bakoitzak dituen dohaiak; doinuak eramateko, neurtzeko, errimatze eta horretaz gainera, bertso horren osotasunarekin zerbait adierazteko. Hori neurri batean berezkoa beharko dik batek. Gero, hori egiten ikasteko, lantzea besterik ez da gelditzen, bakoitzaren arintasun mentalarekin batera. Dena den,- segitzen du Kapik- uste dut hor bi maila daudela: txapelketakoa eta lagun artekoa. Gaur egun dagoen mailarekin, jendeak, nik uste landu egiten duela aunitz eta espektakulo bihurtzen da gero. Ia ez duk lagun arteko elkarriketa eta zirria sartze hori. Hori



Aburuza

Nere lana esan dizut lendik
ez dala bate jolasa
zu karta zai ikusten zaitut nik
udaberriko arrosa;
bestea kartzelan daukazula
eta nola kristo goza?
Baina gaurkoan ekartzen dizut
askatasun horren poza.

Argifarena

Mutil bat espetxean triste ta
zer da nere ondorena?
karteroak azken bertso hortan
eskeini itxaropena.
Egun hori laster iritxitzen
hori ere da leikena,
mutila zerorrekin ekarri
hori berririk onena.

Iñaki Zabaleta: Ezponda eta Mendiburu. Diotenez Euskal Herrian, Espainian eta Frantzian baino haur gutxiago sortzen da orain. Ezponda, ezkongabea, donadoa hortaz arras kezkatua dago. Mendiburu gizon ezkon berria. Hasi Ezponda.

Ezponda

Ezkon berri da nere lagun hau
egia erran behar da
zu haur egiten lotu zaite ba
nihundikan ahal bada;
mundu triste hau zahartzarocari
buruz partitua bada
eta gu zer bilaka gintezke
gero gazterik ez bada?

Mendiburu

Ikusten dut gaur donado hori
geroaz grinan dagola
euskalduna da, ama Euskadiz
haundi du bere axola;
beraz neskekin bero itzazu
bihotza eta odola,
ezen munduan deusentzat ez da
fruitu gabeko arbola.

Ezponda

Arbola zahar baten itxurara
orain ezarri bai naizu
bakartatean bizi den hura
ez da beti zoriontsu,
hortarako ba gaitz txar hortatik
ateratu ba zaitez zu
zeren bakarrik zer sofritzen den
zuk gaztea ez dakizu.

Mendiburu

Zer sofritzen den badakit
erantzuna orai goaita
Euskal Herria ume edo haur
behar gorrietan baita,
ta ni bezala euskaldun neska
polit bat zazula maita
ta ni bezala zu ere bihar
izan zaite haurren aita.

Ezponda

Neska gazte bat maite nuen nik
hura mundutik joana
garai batean ezin nezaken
nik izatea hauxe asma.
Eta hargatik goratu nahi dut
ezkon berri hoiere fama
neronen bizkar hartzen bait dut nik
bakartatearen zama.

Mendiburu

Bakartateak derautzu naski
buru barnean nahasik,
ezkon berriak, ai! mutil zaharra
egiten dautzu garraisi,
zatoz enekin maitalen bidez
behauzu zerbait ikasi
ta ordu denak maitatzen eta
haurrak egiteren hasi.

Xalbador

Alta frantzesik baizik ez daukat
pezetik ez dut nik gorde
izan banitu eman nezazke
disimulatzeke orde.
Nafarroako seme bazara
orain egiten dut galde
kafesne hori mesedez utzi
pagatu gabe debalde.

Alkat

Ez uste izan Nafarra huntan
denak gaudela eruak
diruarekin guk ere naski
derauzkigu helburuak,
pezetarikan ez daukazula
hauxe du zure buruak,
nolaz gastatzen dituzu bada
kontrabandako diruak?

Xalbador

Diruak nola gastatzen tutan
ere nahi du hunek jakin,
behintzat eni zor zerbait uztea
ez daut egiten atsegin.
Orai banoa Iruñera ta
sarri nahi gibelerat jin
doblezka dizut hau ordainduko
han irabazi peztekin.

Alkat

Oso konforme agertu nahi
eskeintzen duzun tratuan,
frantzesek ere abilezia
daukate bere tontuan;
elgarrekilan baketu gaiten
kafetxo horren kontuan
euskal dirua izan artean
Euskal Herri libratuan.



Alkat eta Xalbador.



Iñaki Zabaleta: Lan berrian sartuko dira orain bertsolariak. Bakoitzak zortziko ttikian hiruna bertso bota behar, bikoteak aldatuaz. Lehenengo bikotea Mendiburu eta Lontxo Aburuza.

Gaia:

Goizean goizetik onddoak biltzera joatekoak zerate zuek, Lontxo eta Mendiburu. Esandako orduan, goizeko seietan hor da Lontxo, Mendiburu noiz etorriko zai. Ez da ageri eta bila joan zaio. Hasi Lontxo.

Aburuza.

Goiza heldu da eta
legortutzen ihintza,
elkarrekin aspaldi
Jean Pierre gabiltza,
baina parrandatikan
okertuz zabiltza
eta nora joan zaizu
lagunaren hitza
tra. la. ra. la, ra, la.
lagunaren hitza.

Mendiburu

Ez zaitela haserre
zaude otoi mantxo
oraino goizegi da
konturatu Lontxo,
ohean egoitea
on da eta kontxo!
andrearekin ere
zagon hainbat goxo
tra. la, ra, la, ra, la
zagon hainbat goxo.

Aburuza

Andrearekin honek
lanean indartsu
eta bide hortatik
zuk franko dakizu
baina pasatzen dizut
momentuz abixu
azkar jeiki zaitela
zuk jan nahi baduzu
tra, la, ra, la, ra, la
zuk jan nahi baduzu.

Mendiburu

Irria jautsi zauzu
begitik hortzera
Mendiburu utz zazu
otoi etortzera,
ni faltan ez zaiz joan
hemendik etxera,
ta onddoak utz kizu
oraindik sortzera
tra, la, ra, la, ra, la
oraindik sortzera.

Aburuza

Ate ondoan zai gaur
daukazu txoferra
ta hartu duzun hori
zuk bide okerra,
entzun zaidazu orain
arrazoi ederra
nere iritzian zu
zerade alferra
tra, la, ra, la, ra, la
zerade alferra.

Mendiburu

Alferra naizela zuk
oi! erran duzia
Lontxo adiskidea
baina itxusia,
badaukagu denbora
hortan da hauzia
gure eskuko dugu
atsalde guzia
tra, la, ra, la, ra, la
atsalde guzia.

Iñaki Zabaleta

Gaia:

Argiflarena eta Ezponda. Argiflarena irakurzalea, etxean lasai egon nahi luke. Auzoan Ezponda tronpeta jotzen ikasten ari da. Hasi Argiflarena.

Argiflarena

Horrelakorik ziur
gertako inon da
baina ezin da esan
isilik egonda,
tronpeta jotzen dabil
alboan Ezponda
hemengo errespetoa
lagun zaharra non da?.

Ezponda

Tronpeta jotzen ari
bai naiz ni bultaka
auzoko tetele honek
logalea dauka,
eta bien artean
gaur sortu den marka
hik belarritan sarkik
hor bi paper puska.

Argiflarena

Zer edukazio daukan
Gaiarren ikusten
lagun bat jarrera honek
beti du itxusten
irakurriz kulturez
nahi nitek bai jazten
bertso za(ha)rrak irakurtzen
ez didak hik uzten.

Ezponda

Bertso zahar irakurtzen
denbora guztiak
ni berriz hartua nau
tronpeta jotziak,
denek hartu ditzagun
guk pazientziak,
musika gabe nola
dantzatu gaztiak.

Argiflarena

Tronpeta gabe dantza
liteke munduan
baina ez irakurri
honetxen onduan,
pazientzia galduta
leku seguruan
juten banaiz tronpetakin
joko det buruan.

Ezponda

Hunek nere jotzeko
nun da ahalmena?
mesfiatu liteke
nita jiten dena.
Nik tronpetaz jotzen dut
soinu politena
huneri orroa dago
tronpetik txarrena.

Iñaki Zabaleta: Arozena eta Xalbador. Ama eta alaba. Arozena ama. Azkenik ezkondu da zure alaba, Xalbador, baina hutsik egin gabe bazkal orduero hortxe azaltzen zaizu etxean. Hasi ama.

Arozena

Bizi honek izaten du
euri ta harria,
alaba ezkondu zait
une pozgarria,
baina bixitatzen nau
zer une haundia!
Zer moduz daramazu
zuk bizi berria?

Xalbador

Gaizkirik bizi hortaz
ez dut egundaino
pentsatu baina nola den
ez dakit oraino;
senarra gizon ona dut
garbi eta sano
baina ama maiteago
hura baino oraino.

Arozena

Zu egon zindezeke
gauza seguruan
gehiago ez dut inor
maitatzen munduan,
disgustoz ia hil nintzan
zu juandakuan
gustora hartzen zaitu
amatxok onduan.

Xalbador

Ez dut urrikirikan
ezkontza eginik
eta bizi berri huntan
ez nago ilunik;
baina ama gauza hau nahi
dizut gaur erran nik
zu ikusi gabe ez dut
pasa nahi egunik.

Arozena

Zeure gustukua zuk
hartua mutila
berak dionez lanen
azkar ta abila;
nere pentsamentua
gezurra dedila
uste dut zatozela
bazkarian bila.

Xalbador

Ama, alaba dezu
ezarri minbera
eta orai ez naiz lehen
bezain alegera,
ezkont aintzineko ama
on bera bazera
eni bazkari emaitia
ez zaizu sobera.

Aristorena

*Alaitzen hasia da
triste zegoena...*

hori da orain gerta
ziteken onena
batek bere bizitzan
baldin badu pena
arriskuz joan liteke
pikutara dena.

Lau oinak: gibela, epela, direla, motela.

Nik uste dut parrandak
gauza onak direla
baina ondorenean
bat dago motela
nik ere atzokoan
egin nun epela
orain erdi lo nago
hau da hau gibela.

Xalbador

*Urtetik urte dugu
gertaera latza...*

gaur ere bete behar
hainbeste baldintza
humorea ez bada ere
agertzen eskasa
zortziek xapela ezin
izan esperantza.

Lau oinak: egitea, katea, urtea, maitea.

Naparroa bi zati
daukazu katea
maite nuke bi puska
noizbait egitea
hortaratzeko balitz
aurtengo urtea
eskertuko zintuzket
nik jainko maitea.

Arozena

*Buria ez da inoiz
denon gustakoa...*

baina Euskal Herrian
da beharrezkoa
sarri lehorte gehiegi
ta hor arriskua
santu zahar guztiei
luzatuz eskua.

Lau oinak: asea, haizea, luzea, oinazea.

Txapelketa hontarako
banuan haizea
bainan sinista denok
ia naiz asea
denbora joan eta joan
hau bait da luzea
nere bihotzak badu
nahiko oinazea.


Alkat

*Hitzetan luze dena
ekintzetan motza...*

Batzu ezagutzen dut ta
hak emaiten lotsa
obrarikan gabe naski
gerorik ez goza
hitzak utzi, obrak egin
bilatzeko poza.

Lau oinak: bizkorra, zarra, gogorra, enbarra.

Euskaldun semea da
betitik bizkorra
bainan bere borroka
zaila ta gogorra
Parisek ta Madrilek
haundi dute zorra
eta guk orain azkarrik
Gernikan enborra.



Iñaki Zabaleta: Gartzelako gaia.

1- Bertsoa osatzeko amaiera:

*Udaberriak ekar lezake
neguak kendu diguna.*

2- Gaia:

Adiskide zenuen batek, aberastu denez geroztik, ez du zurekin deus jakin nahi.

Lontxo Aburuza

1)

Presondegian aurkitutzen da
euskaldun nere laguna
eta ez pentsa, karga hori da
guztiontzako astuna;
sufrimentuan igarotzen dut
sarri aste ta eguna.
Udaberriak ekar lezake
neguak kendu diguna.

2)

Orain arte hori nuen
nik lagun segurua
baina bakardadean dut
pasatzen apurua
urrun joan zait betiko
belztu da ingurua;
zer kristotan gastatuko
ote duzu dirua.

Urruti zoaz laguna
dirua da medio
eta hargatik jarri naiz
momentuan serio
aldegiten duzu eta
nik zer erremedio;
gure laguntasun horrek
ez al zuen balio.

Ahaztu zera nitaz eta
zu bazoaz aparte,
agian ongi izan ta
izan (e)zazu suerte;
lagun zaharra nauzu eta
beti zaitut nik maite
eta ongi izaten zu
behintzat saiatu zaitte.

Argifarena

1)

Nerekin ados egongo zera
entzuten zauden laguna,
negua berez zitala degu
eta laburra eguna.
Baina aurtengoz gertatu zaigu
negu leihal ta biguna;
udaberriak ekar lezake
neguak kendu diguna.

2)

Zer ote degu edozein ere
jarrita diruan menpe,
ejenplotxo bat badut hemen ta
uztartutzeko bait gaude;
diruarekin itsututzen da
uste gabez hainbat jende
diruagatik gelditu naiz ni
ez diru ta ez adiskide.

Dirua beti maltzurra degu
ez da ez etsai bakarra
baina askotan azpi jokuan
jartzen bait du hatzaparra;
diruagatik itzuli zaizu
zuri maitasun garra.
Dirua beti morroi ona da
baina oso nagusi txarra.

Txanponik gabe lagunak ginan
beti gu bik elkarrekin
baina aberastu zeranean
joan zera berarekin.
Diruagatik laguna galdu
nork ez luke hartuko min,
holako zerbait gertatutzen da
gaur egunean Euskadin.

Ezponda

1)

Neguko hotza bihurria da
ez dago gauza biguna
goiz argirik e(re) ez dauka eta
goizikan dago iluna.
Geroa dago ordu haietan
beti amesten deguna
udaberriak ekar lezake
neguak kendu diguna.

2)

Baserri koskor ttiki bat nik e(re)
jaio lekutzat izan nun
pobrezia bertan zagola
denetarik zan ezagun,
gero handikan Baionaraino
hori ez bait da hain urrun.
Lehenago lagun bat Amerikatik
jina dela ezagun dun
aitortzen diot nik e(re) ez dut nahi
aberatsa denik lagun.

Lehenago biak herritarrak ta
denbora da igatua
egun batean nere lagun hau
izan bait zen airatua
eta ni bertan pobre bezala
herria zai geratua;
nere laguna itzuli zait ta
osoki aberastua,
diru puska bat du baina
gizatasuna galdua.

Horrelaxe da bien artean
denborak eman pausua
nere berririk ez du jakin nahi
nire lehenago lagun gozua;
anpatu zaio bere boltsa ta
harrotu zaio gogua;
nere bizitza jarraikiko det
nik lehenako modukua,
lagun pobre bat nahiago det
ez zinez bertze faltsua.

Mendiburu

1)

Batetik hotza, bertzetik latza
eta gainerat iluna
arogatik ere kezkatu
agertu da euskalduna;
kukuak kanta, xoriek kanta
ta ekar askatasuna.
Udaberriak ekar lezake
neguak kendu diguna.

2)

Orain artean hainbeste aldiz
elgar ginduen ikusi
eta ber bertan adiskidantza
nahi ote dezu hautsi,
nahi zu baino lagun hoberik
ezin dut nik nihun kausi
zertako bada joan zira ta
dirua hartuz zure nausi.

Lagun maitea joan zira ta
hemen naiz humil humilik
zu aberatsa diru jabea
nik ez dut sakelan pilik,
zer debru bada pentsatu duzu
erraiten dautzu Panpilik
etorri zaitte berriz niganat
egongo naizu ixilik.

Orain artean elgarrekilan
hainbat aldiz egon gaituk
eta bide hoi bide txarrena
lagun maitea hartu duk;
hi aberatsen alde jarrita
oso tristerik hemen nuk
adiskidantza saldu baitaukuk
diru madari(ka)tuan truk.





Alkat eta Xalbador.

Xalbador

1)

Esperantza bat badut nahiz ez
 oraino kuku entzuna
 negu guzia artzain tristeak
 pasatzen bait du iluna;
 orain airostu gira guztiak
 luzatu bait da eguna,
 udaberriak ekar lezake
 neguak kendu diguna.

Nere alderat inguratutik
 zinion ginela anai
 ni ere garai batez zurekin
 erabiltzen nintzen alai
 aberastuta bertze aldera
 so egiten duzu orai;
 zu bezalako adiskideak
 bertzetan baditazke bai
 baina holako adiskiderik
 nik gehiago ez dut nahi.

2)

Adiskidea zinela eman
 dautazu frangotan hitza
 nik bait nuen bai zure aldea
 aberatsagoen antza;
 gaur aberastu zira zuhaur ta
 orain zuk norat balantza?
 ez dautazu nahi behatu ere
 nitan zuk zer konfiantza
 nire laguntza nahi zinuena
 zen zure adiskidantza.

Adiskidantza zurean dut nik
 sinetsi ene kaltetan
 adiskidea agertzen zinen
 ardura zure hitzetan;
 gaur dezakezu ta etsai zira
 agertzen zure obretan
 nik adiskide aski badut ta
 nahiz biziko neketan
 adiskideak maiteak dauzkat
 ni aurriduri pobretan.





MATTIN eta ETXAHUN Irurikoa bertsutan Xuberoan.

MIKEL
AROZAMENA





TYA/FELZAR-88

400 pzta.